

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2017ko ekainaren 23a · 385 zenbakia

SAN PEDRO
2017

Programa barruan



Etxeluze: eraikitze lanetan

Indartsu hasi da martxan berriz ere Etxeluze gaztetxea. Gogo biziz ari da berritutako gazte asanblada proiektu berriak lantzen.

13

Erreportajea

Untzi museoa eta Orio

16

Moila Bazterretik

Xabier Etxeberria

18

Elkarrizketa

Iñigo Urdinaga

29

Kritika

Give up tomorrow

PUBLIZITATEA



Gale Bask S.L.

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lumak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeitzaritza
- Iturgintza
- Elektrizitateak

Kale Nagusia,2 -behea (20810 Orio)
Tel./Fax: 943 134 717
Mugikorrak: 638 610 343 / 638 610 349
galebask@hotmail.com



IZARRA ELEKTROGAILUAK

Alcatel Pixi 4
62,90 €
lehen 79,00 €

35,00 €*
lehen 83,00 €

KARA EROSITA

BETI ZUREKIN

TIEN 21

Eusko Gudari, 44
Tel: 943 83 38 81
20810 Orio (Gipuzkoa)

beko

337,00 €
lehen 498,00 €



libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com
eusko gudariak 35 :: ORIO
[Lomara Astelehenetik 10:00]



BPXport

Santio Erreka Auzoa, 910 Aia
Tel. 943 89 44 28
www.bpxtecnificacion.es

**Karelako bazkideentzako
%15 dktu gure zerbitzuotan:**

- ① NUTRIZIOA
- ① KIROL MEDIKUNTZA
- ① PRESTAKUNTZA
- ① BIOMEKANIKA
- ① HIPOXIA



ARRANDECIA

Asteleheneetik larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

Kostera

Arralak
zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4 943 133 580



ESKAINITZA BEREZIAK
HILERO PRODUKTU EZBERDINETAN

Eki-lorea
belardenda

HILABETE HONETAN
%10EKO DESKONTUA
EGUZTITAKO KREMETAN

- Kosmetika naturala
- Erremedio naturalak
- Finazaren kontrola; Dietista
- Naturazko kontsulta asteazken eta ostiralak
- Elikadura ekologikoa, mikrobiotikoa, zeliakoa...

Eusko Gudari, 5 - 20810 ORIO
Tel. 943 831 377
ekiloreabelardenda@gmail.com

385

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27**karkara@karkara.com**
www.karkara.com**Editorea**Karkara taldea
kultur elkarte**Erredaktore burua**

Miriam Garcia

Erredakzio taldeaJon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Lore Berasaluze
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileakManu Etxeberria
Xabier Etxeberria
Eider Goiburua
Iñaki Iturain**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakIbon Berasaluze,
iñigo Fernandez (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratuta-
koa berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.**Atzeko azaleko argazkia**Maria Azpiroz Makazaga
(2003)**TOKIKOM**2015 **Bikam****LAGUNTZAILEAK**

Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia

PUNTUA JARRITA

MARTIN ALBERDI (DOINUA: BATETIKAN KORROXKA)**Martin zu arraunean zer moduz zabilta?**Eskutako kalloak
gogortuz dabilta.
Ez da netzat bakarrik
arraunaren gaitza,
egunero uretan
ehun bat gabiltza.
Ez al da Orioko
altxorren giltza?Entrenadora ezautu
eta berehala
arrauna uretan sartzen
nola edo hala.
Lanak gogor eginez
txukun sartuz pala,
emaitzak ere agertzen
hasiak dirala.
Laster banderarekin
balioan gerala.**Hurrengoari puntua: Gustora al zabilta infantilen entrenatzaile lanetan??**Publizitatea kontratatzeko:
Karkara
688 859 682 (Sonia)
publizitatea@karkara.com**karkara.eus****EUSKO JAURLARITZA****GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Seme-alabekin jolasten segi dezagun

400dik gora sinadura bildu ditugu; 400dik gora eskaera gure seme-alabekin jolasteko estalitako eremu egoki bat eskatzeko. Bada zerbait!

Negua joan, negua etorri, estalitako jolas-leku baten beharra ahoz aho izan dugu askotan. Hauteskundeak joan, hauteskundeak etorri, programa gehienetan –guztietan ez jartzearren– idatzita, legealdi horretan egingo ziztuzten ekimenen artean irakurri izan dugu estalitako parke baten kontua. Baina, denborak azkar egiten du aurrea eta hurrengo negua etorri aurretik, ekimenari bultzada ematea erabaki genuen. Bi lagunen kontua ez dela argi utzi nahi izan dugu, eta era xume batean –ohiartzunak zarata ekarri badigu ere– herritarrei beren babesa eskatu diegu. Horra hor 400dik gora pertsonen babesa. Eskerrik asko sinatu duzuen guztioi.

Sinadurak eta estalitako jolas-eremu baten gaiari heltzeko eskaria Udalean aurkeztu genituen ekainaren leian. Hortik aurrerakoa Udalari dagokio; Udalari, eta ez alderdi bakarrari, egin baitiogu eskaria. ■ **Gurasoak**

Autokarabanen parkinari buruz

Kaixo! Abaromendiko bizilagun bat naiz. Eskutitz honekin zuzendu nahi nuke zuengana, gure etxe ondoko aparkalekuari eman nahi dioten erabilera dela-eta. Hau da, autokarabanentzako parkinga izatera pasatzea

Joan den astean, proiektu horren alde dagoen alderdi politiko bateko zinegotziarekin egin nuen topo kalean. Beregana zuzendu nintzen nire desadostasuna azaltzeko asmoz, aurreko Karkarako artikuluan irakurri nuenarekin. Oso jator, nire kexua entzuteko prest agertu zen.

Nire galderetako bat hau izan zen: zergatik Abaromendin eta ez autobidearen azpian? Han egitea posible litza-

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egileak nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

ke, baina autoen hotsa entzuten dela diote, eta karabanak insonorizaturik dauden edo ez ez dakitela. Abaromendiko etxebizitzatan ere autopistako zarata ere asko entzuten da, bada. Horrez gain, ura erortzen omen da zubitik, baina, nik dakidala, autokarabanek sabaia dute. Ortzaikan, berriz, 10 partzelentzako tokia besterik ez omen dago.

Politikariei galdetu nahi nieke zein diren garrantzitsuago, herriko bizilagunak, botoa eman dietenak, edo bi egun pasatzera datozen autokarabana-zaleak? Herritarren interesak zaintzeko daude politikariak, eta nork bere etxe azpian nahi ez duena ez luke besiteen etxe azpian nahi beharko.

Nire hurrengo galdera: zergatik ez ahateen ondoan dagoen parkingean? Hondartzan bertan? *Ah! Noski! Hotela ondoan dagoelako!* pentsatu nuen nire baitan. Bere erantzuna, ordea, beste turismo mota bat dela izan zen.

Etxera itzuli eta pentsatzen jartzean harrigarria iruditu zitzaidan erantzun hori; izan ere, hotela kanpina baino beranduago egin zen eta bien atepak pare pare daude. Gainera, ez dago etxebizitzarik hor inguruan. Badirudi garrantzitsuagoa dela negozio pribatu bat herritarrek baino.

Azken hori ez nuen berarekin ko-

mentatu, ezta hurrengo hau ere: zergatik ez egin Txurrukako hondartzaren segidan dagoen parking erraldoi horretan? Ez da ezertarako erabiltzen –ezta udan ere– eta han ez lioke inori molestiarik sortuko. Gainera, autokarabanek, askotan, bizikletekin, motorekin edo beste ibilgailu batzuekin bi-daiatzen dute.

Modu horretan, herrira etortzen jarraituko lukete, hondartzara, herrian erostera... eta ez lieke bizilagunei trabarik egingo. “Arazoa” bakarra litzake: dirua, agian, Aiako udalak bilduko lukeela.

Lehengo elkarrizketara itzuliz, autokarabanek etxe ondoan aparkatu izan dutenetan sortzen dizkiguten arazoak aipatu nizkion: kotxeen soinuak, pertsonen zaratak, txakurren zaunkak, zaborrak eta gorotzak, bai txakurrenak eta baita pertsonenak ere! Hori guztia, gehienez, bi egun egonda, legeak hala dioelako.

Jaso nuen erantzuna izan zen, nire bizilagunen batek terrazan iskanbila ateratzen bazuen, ez neukala ezer egiterik. Hasteko, etxebizitzak hormaz eta atez mugatuta daude. Gainera, bi etxebizitza izango dira gehienez, eta ez horrei autokarabana edo furgoneta –oporetan daudenak, gainera, eta auskalo ze istilu sortu dezaketena–. Eta, gutxi balitz, ura, argindarra eta abar jarri beharko zaizkie!

Hori guztiaz gain, bada zarata, usain eta ikusgaitasun ordenantzak, bai estatu mailan, bai komunitate autonomo mailan eta baita udalerrri mailakoak ere. Baliteke Orion udalerrri mailakorik ez egotea, baina Espainia eta EAE mailakoak errespetatuaraziko ditugu, bide juridikotik, behar izanez gero.

Baita ere esan zidan hondartzako etxeak kanpinaren ondoan daudela eta ez dela ezer gertatzen. Bada, ikusita, etxeen ondoan daudenak bungalowak direla, ez dago konparatzerik etxetxo horiek duten egitura eta karabanei emango zaien tokia. Gainera, horiek, paretez itxitako etxetxoak dira! Gainera, hondartzako etxebizitzak erosi zi-

tuztenek bazekiten hor kanping bat zegoela, etxeak baino lehenagotik zegoelako hor.

Eta, bukatzeko, galdera hau bota nahi dizuet: auzo horretan etxea erosi dugun guztiok berdin erosiko al genuke jakinda autokarabana parking bat edukiko dugula etxeari itsatsita? Agian gehixeago pentsatuko genuke erosketa hori egiterako orduan, ezta? Hain merkeak ez diren etxeak ordaintzen nahiko lan badugu, horrelako buruhauste berriei aurre egiteko.

Etxebizitzek balioa galduko dute autokarabana parkinakin, eta pentsatzen dut ondasun higiezinaren gaineko zergak –IBI– ere balioa galduko duela –aurten 100 euro igo dira–.

Gure portaleko atean zergatik izan behar du autokarabana parking bat aurrean? Kontuan izan eraikinean ezin du bat bizi dela eta, gainera, eskola bat dagoela oso gertu.

Ziurrenik Gipuzkoako Autokarabaren Ekarteko presidentea oso gustora egongo da parking berriari eman nahi zaion kokalekuarekin, baina bizilagunak ez. ■ **Abaromendiko bizilagun bat**

Aralarko Pistak eta Mendi Elkarteak

Kaixo mendizale elkarteetako adiskide guztiok.

Orain dela gutxi, Aralarreko pisten

kontra egindako manifestazio-ibilaldirako gonbidapena jaso nuenean, atsekabea sortu zitzaidan. Iraganean, Aralarreko artzain izan ziren nire birraitona eta aita. Gaur egun, nik dakidala 3garren belaunaldia izanik, Aralarreko artzaina da nire anaia, emaztea eta seme alabekin. Ni neu oraindik lau-oi-nean ibiltzen nintzenean hasi nintzen Aralar ezagutzen eta nire heziketaren parte garrantzitsu bat izan dela pentsatzen dut: bertan hasi nintzen mendiak, gailurrak, izadiaren edertasuna maitatzen. Baita ere ezagutu nuen zailtasun eta neke ugari: karga pisutsuak abere eta geronen bizkarrean hartuta igo eta jaitsi beharra, larrialdiak, ekaitzak...

Kontua da orain, mundu guztiak, geure burua ekologizatzen eta naturazaintzailatzen daukagula. Baina kotxea dugu, motorra, bizikleta eta aldapak eta eskailerak igotzeko eta jaisteko igo-gailua. Gure mendi tontoretako hainbat ospakizunetara joaten garenean, mota guztietako *gailuak* erabiltzen ditugu behar den guztia bertaratzeko.

Gauzak horrela, noizbait pentsatu dugu, guk zer eskubide daukagun besteak, orain dela mende bat bezala bizitzera kondentatzeko? Zergatik ez ditugu, Estatu Batuetan gelditzen diren indioak bezala, gure artzain-abeltzainak ere erreserba batean sartzen? Orain erabakitze eskubidea pil-pilean aldarrikatzen dugun honetan, gu geuk bes-

te batzuen bizi baldintzak erabakitzen erabakitzen gara?

Hogeita hamar bat urtez erabakiak alderantziz izan dira. Denbora guzti honetan, isilik lanean jardun eta elkarriketa bidez kontsentsua bilatzen saiatu dira nekazal-sindikatuak, artzainak eta ganaduzaleak: instituzio, partidu, eta hainbat eragileekin batera. Eta baita lortu ere! Kontsentsu zabal baten bidez hartu dira erabaki guztiak.

Artzainak eta abeltzainak dira gure mendiak zaintzen dituztenak. Horiek desagertzean azkar antzeman ohi da. Baserri bat husten denean bezalaxe.

Gipuzkoan, Euskal Herri osoan, eta hemendik kanpoko mendi gehienetan, artzaintzat eta abeltzaintzat pistak daude eta mendiek hor jarraitzen dute beste guztion gozamenerako.

Aralarren zer gertatzen da?

Landarlanekoei entzun diegu beraien adierazpenetan federatu guztion izenean hitz egiten. Mesedez nire izenean, eta beste askoren izenean ere, ez dezatela hitz egin. Federatuak egoteagatik ez bai diegu beste inongo eskubiderik eman gure ordean erabakiak hartzeko. GURE IZENEAN EZ!!! Zer gertatzen da federatuta dauden horrenbeste eskiatzaileekin, horiek ere, denak pistaren aurka al daude?

Amaitzeko, arren, ez ditzagun hitzak *baitu* eta errespetuz joka dezagun.

■ **Marene Irastorza**

HILDAKOAK

- Juana Aizpurua Artetxe, Orion, ekainaren 17an, 68 urte.
- Pepi Makazaga Ezaiza, Orion, ekainaren 14an, 76 urte.
- Jose Luis Gozategi Oliden, Orion, ekainaren 8an, 73 urte.
- Jose Antonio Orbegoza Mugika, Orion, maiatzaren 30ean. 55 urte.
- Juan Karlos Zuloaga Eizagirre, Aian, maiatzaren 29an. 53 urte.
- Patxi Mugika Lizarazu, Orion, maiatzaren 23an. 75 urte.

EZKONDUTAKOAK

- Irene Otegi Bengoetxea eta Arkaitz Garaiguru Arsuaga, Orion, ekainaren 3an.
- Andoni Lertxundi Azkue eta Veronica Arana Santamaria, Orion, ekainaren 3an.
- Javier Aranguren Odriozola eta Amets Perez Aginaga, Orion, maiatzaren 27an.
- Jairo Zaldua Arregi eta Lierni Unanue Sanchez, Orion, maiatzaren 28an.

JAIOTAKOAK

- Noah Nahuer Di Padis Morillo, Orion, ekainaren 6an.
- Eryc Nicolas Gheorghie, Orion, maiatzaren 22an.
- Hadil Gharbi Mantouk, Orion, maiatzaren 16an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

EKAINeko KRONIKA



Iñigo Urdinagaren liburuaren aurkezpena. KARKARA



Giro eguzkitsuarekin ospatu zituzten Anibarko Portuko jaiak. KARKARA



Estitxu Fernandezek hitzaldia eman zuen Etxeluze gaztetxean

Ikasturteko azken buletina

“Ikasle gazteek kurtsoa bukatzearekin batera, guk ere opor txikiak hartuko ditugu.

Eskuartean duzuen hau da, bai, aurtengo ikasturtean Karkarak aterako duen azken alea. Ikasle gazteek kurtsoa bukatzearekin batera, guk ere opor txikiak hartuko ditugu, eta uztailan ez da paperezko ediziorik izango; San Pedroek geroz eta biharamun luzeagoa uzten zigutela ikusirik, deskantsua hartuko dugu hilabetez, abuztuan kolore pixkatekin eta indarrak berrituta itzultzeko. Ordea, sareko jardunak jarraituko duenez, ez ahaztu Karkara.com-era egiten duzuen eguneroko bisitaz!

Azken buletin honi, aurreko guztiei bezala, zuek jarriko diozue nota; berriz esan nahi dizuegu, Karkarako erredakzioa atea edo gure e-posta zabalik dituzuela edozertarako. Pasa erredakziotik nahi duzuenean edo idatzi lasai, eta gustura jasoko ditugu orainkariak dituzuen iritzi eta inpresioak. Zuen da Karkara, eta esku artean goxo sentitzea nahi dugu, gertu.

Ekainari errepaso azkarra eginez, azpimarratu nahi ditugu Anibarko Portuko festa batzordeak Orioko Silla Dantza berreskuratzeko egindako ahalegina, Surflaria eta paradisia liburuaren aurkezpen jendetsua –barruan duzue irakurgai Ibon Gaztañazpik Urdinaga idazleari egindako elkarrizketa–, Ane Arruti zarautzarrak kultur etxean eskainitako kontzertu ederra, *Bizitzaldiak* saioak, bi ikastetxeetan egindako kurtso bukaerako festak, eta abar luze bat. Orion, aspertzen dena... Nahi duelako –omen– da!

Pertsianak botata jardun gara ale honen *zierrean*, kiskali beharrean! 385.ale hau inprentara bidalita, hondartzara goaz freskatu bat hartzera.

Aixkiriak, gozatu San Pedroez, udako egun luze etagau giro bihurriez. Eta kalean ikusten bagaituzue, gogoan izan erdioporetan gaudela, ok? ;)

KARKARIÑOAK

Orio herri erakargarria al da turistentzat?



“Turistek nahiago dituzte Getaria eta Zarautz”

Bai, baditu eskaintzeko gauza batzuk oraindik. Moila aldea, kirol portu ingurua paseatzeko, hondartza, parrilan egindako arrain ederra jateko aukerak...

Hala ere, turistek nahiago dituzte Getaria eta Zarautz, jende dezente gehiago joaten da herri horietara. Zerbaitengatik izango da, ez?

Bestalde, Orion hondartzara etorzen den jendea gero ez da herrira gerturitzen. Uste dut hori landu beharko genukeela, udan herriko kaleetan saltsa pixkat izateko.

Iban Egiguren



“Oriok bereizgarriren bat bilatu beharko luke”

Oriok potentziala du turismo lasaia erakartzeko. Haurrekin etor daitezkeen familientzat, adibidez, erakargarria da: herria eroso da bizikletaz mugitzeko, hondartza dauka, paseatzeko leku ederrak, parkeak... Dena den, etekin gehiago atera behar litzaioke guzti horri.

Zarautzen, adibidez, mugimendu eta parranda giro handia egoten da uda garaian, eta uste dut Oriok ez lukeela hori bilatu behar.

Inguruko herriak espezializatu egin dira turismo mota batean, eta agian, Oriori hori falta zaio, xede talde jakin bat erakartzeko bereiztea.

Nagore Rementeria



“Potentziala du erakargarriagoa izateko”

Bai. Potentzial handia du gainera erakargarriagoa izateko. Ondo kokatuta dago, Donosti edo inguruko beste herrietara erraz mugitzeko. Bestalde, poztu naiz hondartzako hotela berri dutela ikusita, itxura ona dauka.

Kanpineko bungalowak ere, ematen duenez, ondo funtzionatzen dute. Hala ere, zerbait egin beharko litzateke hondartzara ingurura joaten diren turistak plaza ingurura gerturatzeke. Autopistako sarrera-irteera berrietik etortzen dira horietako asko, eta ez dituzte plaza, moila etab. ezagutzen. Hondartzan dabilen jendea herriko taberna eta jatetxetara erakartzeko moduren bat bilatu behar genuke.

Joxe Mari Elgorriaga



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

MAHAI BUELTAN

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxeko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Sukalde txikia da gurea, bi su eta plantxa, bertatik ateratzen da dena”

Marisa Egibar Etxeberria **Patata tortilla**

**Osagaiak**

Patata.
Tipula.
Arrautza.
Gatza.
Ezkituko osagaia.

Edaria

Sagardoa.

Nola egin

Patatak zuritu eta zatitu. Sutan patatak ondo egin behar du, hori da sekretua. Ia bigunduta dagoenean gehitzen dio tipula, txiki-txiki eginda, erraz urtzeko moduan. Sutatik aterakoan olio pixka bat txukatu.

Zortzi arrautzako tortillak egiten ditu Marisak, begiz erabakitzen du patata kopurua. Patatari eta arrautzari, biei botatzen die gatza. Tortilla egiteko: paelari olio jarri eta patata gehitu. Ondoren arrautza. Zorte on buelta ematerakoan.

Berriketaldietan jasotako errezetak, denboraldi osoko proposamenak:

Errezetak ezagutu ditugu, baina berriketaldietan ikasitakoarekin gelditzen gara. Helduleku asko ditu sukaldeko ofizioak, bizitzarako ikasgai eder askoak ditu gordeta. Azken elkarrizketan, Marisa Egibarrek olioak besoan utzitako arrastoak erakutsi dizkigu. Olio arrastoen bila jarraituko dugu, berriketan.

URRIA: Pilar Etxezarreta Iribar. Bakailaoa pil-pilean.

AZAROA: Jose Luis eta Jose Migel Odriozola Lertxundi. Irasagarra gazta irabazlearekin.

ABENDUA: Iñigo Perona Balda. Babarrun zuria barazkiekin.

URTARRILA: Nerea Artola Pascual. Marmitakoa.

OTSAILA: Bixente Lasa Karrikaburu. Legatza saltsan.

MARTXOA: Jon Ander Arozena Insausti. Tolosako babarrunak.

APIRILA: Orio jatetxea (Bartzelona). Orio entsalada: letxuga eta hegaluze mendrezka.

MAIATZA: Itziar Olasagasti San Sebastian. Arraunlarien entsalada: pasta, tomatetxoak eta oilaskoa.

EKAINA: Marisa Egibar Etxeberria. Tortilla patata.



Zortzi urteren aldea dute Marisak eta Anak. Marisa sukaldean aritzen da, Ana barran. KARKARA

JON AGIRRESAROBÉ

Pintxo txikiteoak eman digu aitzakia. Ostiral iluntzero jende mordoxka biltzen da tabernaz taberna. Koloretsu egon ohi dira mahai gainak, herriko tabernariak ondo lantzen dute eskaintza. Salatxo tabernan, esaterako, tortilla barrara atera zain egoten dira koadrilak. Borobil hori erraldoia hamasei kolpetan desagertzen da.

Astelehen goizean joan gara Egibar ahizpengana patata tortillaren sekretua ezagutu asmoz. Goizeko zortziak eta erdiak dira eta tipula txikitzen harrapatu dugu Marisa. Etxeko sukalde txikira sartzeko baimena eman digu.

Marisa ez diguzu dena kontatu, tortillak beste zerbait badu.

Badauka bai, urtetako sekretua. Ez dago zaila asmatzen.

Sukalde txikian ez dago patata asko zuritzerik.

Zerbitzariak barran egiten dute lan hori, ostegunetan goiz eta arratsalde aritzen dira patata zuritzen, fregadera parean baldea hartuta. Bezperan hasten dugu produkzioa. Ostiraleko poteoko tortilla guztiak egiteko zakukada patata behar da, hori da gure neurria.

Etxeko janaria eskaintzeko garrantzitsua da hornitzaileak zaintzea. Herritarrak dira asko. Kasu honetan, usurbildik ekartzen dugu patata, gozoa gelditzen da. Zaldibiako etxalde batekoak dira arrautzak. Tortillaren kolore horia arrautzarena da, atentzioa ematen dio jendeari tortilla hori-horiak.

Zenbat urte da Salatxo ireki zenutela?

23 urte egingo ditu urriaren hamaikan. 1991. urtean zabaldu

genuen, gaur goizean. Bi ahizpak, anaia Joxe eta Mari Karmen Aguazil hasi ginen. Pintxoetara bideratutako taberna irudikatu genuen hasieran. Horregatik, sukalde txikia da Salatxokoa. Bi su eta plantxa bat, bertatik ateratzen da dena.

Denborarekin kontsumo ohiturak asko aldatu dira. Tabernak funtzionatzeko sukaldeak lan egin beharra dauka eta aspaldi hasi ginen otorduak ematen. Garbi daukagu etxeko janaria eskaini nahi dugula. Hori bai, hain sukalde txikiarekin ez dugu beste aukerik: astelehenetik ostiralera lana aurreratzea. Lanean harrapatu nauzu: atzo garbitu nituen txipiroiak eta gaur prestatuko ditut, tipula txikitzen ari nintzen. Razioak osatuko ditut, tarrotan.

Sukaldean aritu al zara beti?

Bodegon Joxe Marin –Paxitarenean- hemezortzi urte egin nituen zerbitzari. Salatxo ireki aurretik Donostian taberna batean aritu nintzen sukaldean ikasten, Amara auzoan. Ez dut tabernaren izena gogoan. Ordu arte jendearentzat aritu gabea nintzen sukaldean. Gogoa jarriz gero ikasten da.

Zatoz Ana, zuretzat hurrengo galdera. Pintxo txikiteoan, taberna dezentetan jende mordoxka ibiltzen da ostiralero.

Bai, asko ibiltzen da. Hasiera batean seiak eta erdietan hasten zen mugimendua, orain zazpiak edo zazpiak eta laurden aldera. Bi ordutan lan asko egiten dugu, etenik gabe aritzen gara. Hiru bat urte izango dira martxa onean ari garela.

PUBLIZITATEA



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL.F - 943 572 083
FAX - 943 571 190
Lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
ABESLARI, 1
20810 ORIO



AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
www.facebook.com/rosmasmodas

10% DESKONTUA FAMILIA UGARJENTZAI

Garbiñe Arregi

Moda eta osagarriak

Herrero plaza, 7
635 716 265

juergarrietan goizez zabaldu!

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa



50eko dezentas familia egarrien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 argine/jantziak



Zaragueta Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Lizaso dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 18

Eusko Gudari, 48



obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
erakinen mantenua

borja agirresarobe lopedegi
herriko-barra 6. behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com



Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

PERTSIANAK

AKO MAZ



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoar: 943 83 59 00

MENDIZABAL AROZTEGIA
Neurriko armarriak
eta egurreak

943 831 175 Altxerri bidea
645 708 491 Seti-Ajai etxea
mend@aroztegi.net 20810 Aia-Orio

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA



**LEIHO ISOLATZAILEAK
PVC - ALUMINIOA**

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com
www.carpinteriamaiza.com
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

ZINKU

Igeltseritza orokorra
Etsako errealitatea mota guztiak
tabloak, batua gatak, igeltsera...

Andere Zinkunegui
667 740 279

Ekainak 28: Sexu askapenerako nazioarteko eguna



Eider Goiburua

Eskura dezagun ausardia hau, sortu dezagun askatasun giro hau eta gozatu dezagun aniztasunak ematen dizkigun gozamen aukerez.

Atorren astean ekainaren 28a da, San Pedro bezpera Orion eta, askok jakingo ez duten arren, Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna.

Baina gaurkoan ez dut LGTBQI+ pertsonen eskubideak bermatzen dituzten legeen urraketaz hitz egin nahi, gure jendarteko arauak sistema heteropatriarkal eta kapitalista bermatzeko eginak baitaude. Beraz, urraketaren sustraia sisteman bertan dago eta ez legeak betetzen ez dituzten pertsona konkretuengan –pertsona hauei beren erantzukizuna kendu nahi ez badietere–.

Sexu askatasuna ez da legeen aldetik etorriko, jendartearen aldetik baizik, norberaren sexualitatearen inguruko hausnarketatik, heteroarautik at dauden desioen onarpen eta gozamenetik, praktika sexual anitzen esperimentaziotik, gorputz guztien edertasunaren bisibilizaziotik, etabar luze bat.

Aurreko San Pedrotan –aurten ere egingo dugun antzera– LGTB sexu fantasia lehiaketa egin genuen txosnan Xaltxera Talde Feministak, ekainaren 28a zela eta. Jende askok hartu zuen parte, eta fantasia, desio, etabar. anitz eta ugari adierazi ziren. Hauetako pare bat fantasia ekarri nahi ditut gogora:

Odolezko itsasoa egingo dinagu biok nire ohean.

Zuek eta ni orioko hondartzako ur iskinean, olatuek talka egiten duten une horretan, bero-bero. Hiru gorputzak bat direlarik, igurtzi, laztan... ezer ez digu axola. Gora behera, aurrera-atzera. Plazerra sentituz, olatuek gora beherekin bat eginda mugarik gabe plazer oihu eta garrasien doinuari eutsi ezinik. Mugagabeko plazeran bustirik.

Bi fantasia hauek, gauez eta parranda giroan beraien desioak adierazteko askatasuna sentitu zutenen adierazpen txiki bat besterik ez dira. Eskuratu dezagun ausardia hau, sortu dezagun askatasun giro hau eta gozatu dezagun aniztasunak ematen dizkigun gozamen aukerez, hau baita benetazko sexu askapenerako bide bakarra. Lema feministak dioen bezala *pertsonala politikoa delako*.



Rikardo Uzkudun

Gastetxea



astetxea bai, s-rekin. Gastatzen duen etxea alegia, gastatua izan dena baino. Eta gastatzeko bi modu daude,

gastuak sortzea edo eta erabilia ez izatea. Beste era batera esanda, zer ateratzen ari zaigu garesti Orion?

Esate baterako, Arraunetxea. Urtero 80.000 euro inguru gastatzen dira mantenuan bakarrik, eraikitzen gastatu zirenak kontuan hartu gabe –horrekin ez dut esan nahi Klubak instalazio berririk edo berriturik behar ez zuenik, e?-. Beste maila batean, garestiak atera zaizkigu, apenas erabiltzen direlako, teniseko pista edo Ikastola berriaren azpiko aretoa.

Eraikinak proiektuaren aurretik egin izan dira maiz, garai bateko joera espainiarrak nola, eraiki beharriaren sukarrak jota. Frontoi berriari ere arrisku hori ikusten diot: Behar al dugu frontoi haundi, hotz, eta itxi bat? Erabiliko da? Ez ote da nahikoa, Usurbilen bezala, lehengoaren lekuan txikiago eta irekiago bat egitea? Ba al dago erremontea sustatzeko proiekturik, ala?

Alde horretatik behintzat, pozgarria da Arraunetxean arraunaz bestelako ekitaldiak ikustea, sasi-medikuntzari buruzko hitzaldiak edo moda desfileak badarik ere. Eta erriorearen beste aldera, eta zuzentasunera bueltan, z-dun Gaztetxera alegia, zer esan... Maiatzeko Berrri Txarrak ez duela gastetxea salbatuko, irailako berri onak Arraunetxea salbatuko ez duen bezala... ala bai?

PUBLIZITATEA

adriategia
ANTILLA
jatetxea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

HAIZE BERRI
 taberna-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak,
 bokalok,
 hamburgerak,
 raziok,
 eguneko menua...

*ostiratsan
 pintxo
 potax!*

eta etxera eramateko
 zerbitzua!
943 831 623
 Oriko kiroldegian, Erilbera 1



**ASADOR
 XIXARIO**

Leku Gustatu Kalea, 2
 Tel. 943 830019 - ORIO

Portu
 ERRETEGIA

Sando Erreka Auzoa, 49
 943 89 34 34
 20809 AIA-ORIO

*braskok baxondo oinetan
 pintxo onak eta txikiak*

ITZALA

*kartela jokatzen
 auzoan*

tel. 943 83 12 59

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

KOLON TXIKI
*adriategia
 jatetxea*



Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-
 fotorosanaarruti@gmail.com
 telf: 943 83 58 45



GORA 2017ko
 SAN PEDRO JAIAK!

JATETXEA

Gaberna

Antillako Hondartza 5
 20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**



943 578 176
 Herriko enparantzan

Izozki naturalak - Opilak

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

arkaitz taberna
 orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657



Soco Romano, Selma Huxley eta Jose Mari Unsain Red Bay-n (Labrador), 2004.

Donostiako Untzi Museoa eta Orio

Donostiako kaian dagoen Untzi Museoa itsasoaren euskal historia ikertzeko eta erakusteko sortu zen. Historia horretan, Orioko arrantzaleek eta Orian egindako itsasontziek toki garrantzitsua izan dute. 26 urtez zuzendari egondako Jose Mari Unsainek Untzi Museoak Oriorekin izandako harremana erakutsi digu.

ERREPORTAJEA

TESTUA: JOSE MARI UNSAIN ETA IÑAKI ITURAIN
ARGAZKIAK: UNTZI MUSEOAREN ARTXIBOA

Jose Antonio Unsain, Aiako Ekialde baserrikoa. Kontratista lanetan ibili zen, etxeak eraikitzen. Maria Pilar Azpirozekin ezkondu zen, Aiakoa hau ere. Haien seme Jose Mari Orion jaio zen 1951n; baina txikitatik Donostian bizi izan da, familia hara joan zen eta bizitzera.

Jose Mari Unsain Azpiroz Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako portuan daukan Untzi Museoko zuzendaritzan aritu da lanean 26 urtez, 1991tik, Soko Romanorekin batera. Orain, aurtengo ekainean, hainbat arrazoi tarteko, utzi egin du ardura hori. Urte horietan guztietan Euskal Herriko itsas historia ikertzen, zaintzen eta zabaltzen ibili da. Horixe izan du lana.

Untzi Museoak oso harreman estua izan du Orioko herriarekin bere hasieratik. Nolabaiteko zerikusia izango zuen horretan noski Jose Mari oriotar izateak. Agurraren orduan, Jose Marik hitz hauen bidez zehaztu egin nahi izan du zertan gauzatu den UMK eta Oriok izan duten harremana.

Museoak argitaratu zuen Oria ibaian eraikitako itsasontzien lehenengo monografia: *Oria Ibaiko untziak. Los barcos del Oria* -1994-. Liburuxka haren hitzaurrean, Jose Marik urrats bat eman nahi zuen Orioko herriaren oroimen historikoa osatzen, tradizioz arrantzara eta arraunera mugatua zena.

Liburu hartan Selma Huxley emakume ingelesak ere parte hartu zuen. Testu bat idatzi zuen liburuan, zeinetan garrantzi handia ematen zion oriotarren itsas historiari; horrekin batera erregu bat egiten zigan oriotarroi: gure kultur ondareaz arduratu gaitezela.

Museoak Itsas Memoria aldizkaria argitaratzen du, itsasari lotutako gaiak plazaratzeko. Aldizkari horretan ateratako hainbat artikuluk bide hori jorratu zuten: Orioko itsas kulturaren hainbat alderdi landu zuten. Haietako batzuk honakoek sinatuak dira: Juan Antonio Rubio Ardanaz, Romana Emparan, Jesus Mari Perona, Iñaki Iturain, Juan Pablo Olaberria, Iñaki Olaizola, Ane Izarra eta Itsaso Ibañez.

Urpeko Oroimena, 2004 liburuan, berriz, Orioko itsasadarrean hondoratutako itsasontzien gaineko ikerlan bat plazaratu zuten, burdin-mea garraiatzen zuten ontziena. Museoak editatu dituen beste hainbat argitalpenetan ere agertzen dira Oriori buruzko aipamen historiko eta etnografikoak. Liburu eta artikuluko horiek denak orain Untzi Museoaren weban aurkitu daitezke.

Museoak 1990ean bi ontzi eraikitze eskatu zion Mutiozabal ontziolari, museoan erakusteko, hango erakusketa iraunkorrean. Francisco Karrera *Txankak* Erdi Aroko balea-ontzi bat egin zuen eta Agustin Gozategi *Kallabarrok* txipiroitarako batela. Bi ontziak egiteko prozesu osoa ondo dokumentatuta geratu zen argazkiz eta bideoz.

Museoak bere ibilbidearen hasieratik jarri zuen plan bat euskal kostaldeko itsasontziak jaso eta gordetzeko; era asko-



Francisco Txanka eta Agustin Kallabarro, lanean Mutiozabal ontzian.



Erdi Aroko balizko balea-ontzi bat egiten UMrentzat, Mutiozabalen.

“Jose Mari Unsain 26 urtez aritu da Untzi Museoko zuzendaritzan, 1991tik.”

“Untzi Museoak oso harreman estua izan du Orioko herriarekin.”

SELMA HUXLEY, ROMANA ENPARAN,
LOURDES ODRIOZOLA, CRUZ APEZTEGI

ORIA IBAIKO UNTZIAK



Oria ibaiko untziak liburuaren azala. UNTZI MUSEOA, 1994

takoak: lan, kirol edo aisialdikoak. Orion jasotakoen artean Balentin Ikazeta *Ixarrak* 1963-64an estropadetarako eraiki zuen trainerua dago. Ontzi hartan irabazi zituen Oriok 1964, 1970, 1971 eta 1972ko banderak. Orioko Arraun Elkarteak 1992an Untzi Museoari eman zion dohaintzan. Orioko beste ontzi bat ere bereganatu zuen Museoak: Lorenzo Lizasok 1946an arrantzarako egin zuen *Maria Rosario* batela; gero UMri Jose Manuel Peñak eman ziona.

Azken urteotan euskal itsas ondareak gauza asko betiko galduko zituelakoan, 2010ean Museoaren arduradunek bi txosten eman zizkion Orioko Udalari: batean Mutiozabal ontziolaren balio historiko eta ondarezkoaren berri zettorren, eta bestean *Berriz Gure Naia* baporearenak. Horixe da hain zuzen Orion egurrez egindako azken baporea. Tamalez, ezin izan zen baporea gorde; baina zorionez, ontziola, Gipuzkoan zutik dagoen egurrezko itsasontzien azkena, orain egokitzen eta berritzen ari dira.

Museoak baditu irudiak ondo erakusten dutenak Mutiozabal ontziolak hainbat garaitan nolako itxura zuen. Horien artean dago Antton Elizegik 1974an egindako 60 argazki sorta, zeinetan ondo jasota geratu zen nola eraiki zuten Luzaro laketontzia. Argazki horietako batzuetan, oso ondo ageri dira Francisco Karrera *Txanka* eta Agustin Gozategi *Kallabarro* arotzak.

Todos los Santos fragata, 1803an Orion eraikitako ontziaren planoak ere jasoa du Museoak; baita 1901ean Orion harra-



“Maria Rosario” arrantza-batela, Lorenzo Lizasok egin 1946an.



Ikazetak 1963an egindako trainerua, Oriok dohaintzan emana UMri.

patutako balearen jatorrizko argazkia ere.

Bi aldiz ikusi ahal izan genituen oriotarrok herriko kultur etxean Untzi Museoak jarritako erakusketak: *Arrantzaleak daki zer den Itsasoa* –1995ean Iñaki Martín antropologoarekin eta Euskadiko Itsas Gaztediarekin batera antolatua–, eta *Las embarcaciones tradicionales ante el nuevo milenio* –2000-2001–.

Azkenik, aipagarria da Orioko armarrari zaharrarena, orain udaletxeko aurreko paretan dagoenarena: Jose Mari Unsain eta Xanti Zalduaren proposamenez jarri zuten han, 2003an udaletxe berria egin zutenean. Armarraria kalean zegoen baztertuta, udaletxea 1965ean sute batek erre zuenetik.

ZENBAKIA

1963

Trainerua. Valentin Ikazetak 1963an egindako traineruarekin irabazi zituen Oriok 1964, 1970, 1971 eta 1972ko Kontxako banderak. Aurrenekoa patroiz Claudio Gorriya zela; beste hirurak, Juanito Altzerriekin.

Bi alkandora jantzita (2090)



Xabier Etxeberria

Izatez, azalari itsatsia daramagun zaharraren gaisetik, aberats berriaren alkandora jantzi dugu eta albokoari burla egitera ausartzen gara.

Laster berriz joatekotan naizelako edo, lehendabiziko aldiz herritik kanpora tarte bat bizi izan nintzenekoa etorri zait gogora. Karrerako azken urtean eta Erasmus gisa izan zen, beste hainbeste bezalatsu. Frantzian egokitu zitzaidan niri, gelako beste bi lagunekin batera.

Lehenengo aste pare aterpetxe batean pasa ondoren, alokairuan apartamentutxo bat merke samar topatu genuen. Etxekoandrea emakume ihar buruzuri bat zen, eskoba kirtena irentsi izan balu bezain tente ibiltzen zena, gure aurrean behintzat.

Hasi zaigu etxea erakusten, tramitea lehenbailehen pasatzeko gogoz, eta azaldu dizkigu azkar batean argindarra nola, uraren giltza non eta abarrekoak. Denetik baitu apartamentuak, baita garbigailua edo labadora ere. Orduantxe pausa, zalantza bere begiradan eta galdera, hain frantziarra den harrokeri puntu horrekin:

-Garbigailua zer den badakizue Espainian, ezta?

Guk *oui* eta *non* erantzun geniola gogoratzen dut. Bai, ba-genekiela; eta ez, ez ginela espainolak.

Orain dela gutxi, pasa den mende hasieran Frantziako Landak nola aldatu ziren irakurtzen ari nintzela, orduan han nagusi zen pobreziazen lekukotza ematen zen: bi alkandora izanez gero, zoriontsu litzatekeela aitortzen zuen gizon batek. Bat soinean, bestea garbitzen errekan.

Pentsatzen jarrita, gizon behartsu hura gure etxekoandre mutur-estua aitona izan zitekeela otu zait eta gaur egun eskasak ere, bi alkandora baino gehiago dituela eta jada ez direla errekan garbitzen aitonari azaltzen imajinatu dut.

Orditik gauzak asko hobetu baitira Europa alderdi honetan, eta atzo goiz arte Ameriketara emigrante joaten ginenok –bai Frantzian, bai hemen– orain jaso egiten ditugu etorkinak. Izatez, azalari itsatsia daramagun zaharraren gaisetik, aberats berriaren alkandora jantzi dugu eta albokoari burla egitera ausartzen gara –Pelok bi nola jantziko ditu bat besterikan ez du ta–.

Eta beldur naiz, bueltan bueltan, nik neronek ere ez ote diodan gurera etorri den bati baino gehiagori, esate baterako *Garbigailua zer den badakizue Pakistanen, ezta?* galdetu, hain euskalduna den harrokeri puntu horrekin.




FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Manu Etxeberria

Fu-man-chu Oriora

Gure arbasoei gertatu moduan, txinarraren dendek ere badute hemen beren txokoa, eta haien seme-alabak, euskara erabiltzen hasita dauden heinean, badira, izan ere, euskaldunak.

Langileak dira, langile porrokatuak, dendari lana ogibide duten txinatarrak. Euskaldunak XIX. mendetik Ameriketako mendietan artzain lanetan ibili ziren bezalaxe. Hauek ere, gehienek, helburu dute *herrira* dirudun itzultzea, Estatu Batuetako Nevadan, Argentina edo Txileko mendietan lan ixilean aritu ziren euskal gazteek egin zuten bezalaxe. Etxera itzuli eta, *indiano* ezizena onartuta, etxe dotore bat eraiki, jaioterrian. Gure arbasoei gertatu moduan, txinarraren dendek ere badute hemen beren txokoa, eta haien seme-alabak, euskara erabiltzen hasita dauden heinean, badira, izan ere, euskaldunak.

Txikitan, 1960ko hamarkadan jaio ginenontzat, eta baita 1950 eta 1970ekoentzat, herriko zinean, Leunda zinema aretoan, ezagutu genuen Txinako lehenengotako erreferentzia. *Tarzán, El séptimo de caballería, Sisi emperatriz, los hermanos Marx* eta abarrekin batera, bazen pertsonaia bat, misteriotsua eta, txikiontzat, beldurgarria: *Fu-man-chu*. Hara nolako eredu geneukan orduko haurrek Txinako kontuez; alajaina! Beno, behintzat, Domund-eko eltxetxoetako txinatar gaztetxo baten aurpegi atsegin hark irudi hura goxatzen zigun; eskerrak jaunari! Bi irudi haien burruka ulertezina bazebiltzigen, bai, ibili ere, gure buru xaloetan.

Bizitzak buelta asko ematen ditu, inondik ere, eta zeinek esan jaietako afariak egiten genituen jatetxea, Arrillaga Erretegia, txinatar denda batek ordezkatu zuela. Denetatik aurki daiteke txinoan, ikurriña daraman pegatina batetik hasita, milaka produktu ikusi arte. Hala eta guztiz ere, nekez emango digute haiek Arrillagan jaten genituen txuleta zoragarriak jateak ematen ziguten plazerra.

Bestea, non eta ikazetarrek tailerra zuten lokalean. Bigarren denda han kokatu dute txinatarrek. Ez dute jakingo, ziur aski, leku horretan bertan, Euskal Herrian dagoen estropadarik garrantzitsuenerako, Kontxako Banderarako, urte askotan, iraileko aurreneko bi igandeetan uretaratzen ziren zortzi traineruak hantxe eginak zirela.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682

publizitatea@karkara.com

“Surfa talalaia gisa erabili dut, gizartearen martxaz jarduteko”

Iñigo Urdinaga

Idazlea

Iñigo Urdinaga oriotarrak «Surflaria eta paradisia» argitaratu zuen maiatzean, eta Ibon Gaztañazpi kazetariak bi elkarrizketa egin zizkion jendaurrean libururen harira. Lehena Zarauzko Literaturia jardunaldien baitan izan zen, eta bigarrena Orion, ekainaren 2an.

IÑIGO GAITON

Ibonek baldintza bakarra jarri omen zion Iñigori, honek bera elkarrizketatzeko egindako gonbita onartu aurretik. *Nik nahi dudan galderak egitekotan e!*. Hori argi utzi ostean egin zituzten bi oriotarrek jendaurreko bi saioak. Elkarrizketa horietako zatiekin osatua da ondorengo testua.

Nolatan, bada, Urdinaga?

Iñigo Fernández dezente daude, eta pare bat ezagun samarrik. Duela urte asko, nire lehen liburua izan behar zuena idazten ari nintzela, inspirazioak oparitu zidan abizen moduko hori. Gero, Zelanda Berrian bidaiatzen nabilela, ingeles hiztunei Iñigo ahoskatzea zail egiten zaienez, Indigo deitzeko esaten nien, belarrira antzeko egiten dutelako. Urdin mota hori gustatu ez nonbait, eta Bluey esaten zidaten lagun batzuek, urdintxo-edo. Kasualitate handiegia zen pasatzen uzteko.

Zerk eman zizun liburua idazten hasteko lehenbiziko bulkada?

Gaztetan eguneroko bat idazten nuen surf saioen inguruko oharrekin. Gaur egun lotsa ere ematen dit lerro haiek irakurtzeak, baina ondo erakusten dute orduko nerabe hark itsasorekin zeukan lilura. Gerora, dezente bidaiatu dut bakarrik, alboan koaderno hartuta. Bestalde, surfak azken urteotan hartu duen norabideaz ere idazten hasi, eta horiek denak bazten hasita, logika propioa hartzen hasi zen testua.

Surfak hartu duen norabideaz, zerk kezkatzen zaitu bada?

Hemen badirudi surfa ikusteko eta bizitzeko modu bakarria dagoela, marka handiei interesatzen zaien horixe bera: surf txapelketak, marka babesleak, surf eskolak... Surfa kirol gisa, surfa diru iturri moduan... Masifikazioa eta tentsioak ekarri ditu horrek guztiak uretan. Eta surfak asko galdu du gozagarritasunean. Surfa bizitzeko modu asko daude, eta gainera, nire ustez, surfak, funtsean, diruaren kulturarekin talka egiten duten balio asko ditu bere baitan. Diru asko irabazi nahi baduzu, ziurrenik ez zara uretarako libre egongo itsasaldia sartzen denean...

Liburua irakurtzen hasi, eta ezin gelditu, imana bezala heldu ninduen! Orioko lehengo hondartzan ere sentitu naiz.

Orio dezente agertzen da liburuan, bai, eta uste dut oriotarrek irakurketa hurbilagoa egin dezaketela, baina Orio abiapuntua da hor, gure jaioterria eta gazte garaiko eszenarioa. Orion hazi eta hezi ginen, baina dezente haratago doaz liburuko kontuak.

Istoria unibertsalak kontatzen dituzu, bai. Orio eta oriotarren bidez askotan: Putxades, Patxi Danbolin, Iñigo Timón, Mikel Agote...

Asko estimatzen dudana jendea da, eredugarria iruditzen zaidana. Zaporea dute, nortasuna, benetakoak dira. Ez estereotipo jakin baten edo beste baten arabera. Itsasoari oso



Gaztañazpi eta Urdinaga, Zarauzko Literaturia jardunaldietan. KARKARA

“Orio dezente agertzen da liburuan, bai, eta uste dut oriotarrek irakurketa hurbilagoa egin dezaketela”

lotutakoak, baina pertsona gehien-gehienak baino askoz libreagoak, nire ustez. Oriok badu oraindik zer esportatua.

Kanpoko barra mugarri bat da liburuan.

Orioko itsasadarrean olatu oso ona genuen eta, 1995ean, 21 urte nituela, *Putomuroa* egin zutenean, olatua suntsitu zuten, eta gure bizitzak ere bai nolabait. Gainera, harekin hasi zen Orioko hondartza inguruaren gainbehera. Horrek markatu egin gintuen, eta inguratzen gaituen guztia ikusteko beste modu bat eman zigun, kritikagoa. Liburuan salatzen dira, zentzuz baina gordin, desarrollismoa, hemen izan dugun porlan festa eta abar. Desarrollismoaren sinboloa da *Putomuroa* liburuan. Uste dut, etorkizuneko oriotarrek pentsatuko dutela aberats berrien harrokeriaz jokatu genuela.

Pasarte gozoei ere egin diezu tartea.

Surfaren ederraz, bidaietako esperientziez edo nire txikitako oroitzapenei buruzko lerro asko daude hor. Orioko surfariak gaztetan herriko arrantzale jubilatuekin genuen harreman berezia hor dago, adibidez. Asmo literario bat badu liburua, ahalegindu naiz idazkera eta estiloa zaintzen. Eta ondo dokumentatua dago, surfaz idatzi duten idazle handien erreferentziekin eta abar, baina irakurtzen gozatzeko liburu bat izan nahi du.

Surflaria eta paradisia, surf egiten ez duen jendearentzat ere bada, ezta?

Bai, bai, guztiz. Argi neukan hasieratik ezin zuela surflariarentzat soilik izan, eta hori behintzat lortu dudala ematen du, han eta hemen esan didatenagatik. Surfa talaia gisa erabili dut, gizakiaz, gizartearen martxaz eta abarrez jarduteko.

ARGAZKI ERREPORTAJEA

Kurtso amaierako jaia Zaraguetan

Esperientzia eskolakoak omendu zituzten ekainaren 3an Zaragueta eskolako kurtso amaierako jaietan. Hamaietako batekin eman zioten hasiera egunari eta ikasleek dantza emanaldia egin zuten gero, guraso eta familiakoen aurrean. Ondoren, guztiek elkarrekin bazkaria egin zuten, eskolan bertan.

Imanol Urbietari omenaldia Ikastola egunean

Kurtso amaierako jaia egin zuten ekainaren 11n Orioko Herri Ikastolan. Imanol Urbietari omenaldia egin zioten ikasleek, haren kantuak abestuz eta dantzatzuz. Nekane Larrañaga eta Amaia Azpillaga ere omendu zituzten, erretiroa hartu duelako, bata, eta 25 urte daramatzalako ikastolan lanean, bigarrena. Festarekin bukatzeko, kantuz agurtu zuten Ikastola DBH4 amaitu berri duten ikasleek.



ERREPORTAJEA



Gaztetxea sendotzeko oinarriak lantzen

Gaztetxe baten agenda izaten da beti kanpotik ikusten dena, herrira irekitzen den leihoa. **Horren guztiaren atzean dagoen lana da ikusten ez dena.** Etxeluzeko asanbladak bi urte daramatza lanean, barrura begira, gaztetxeko proiektua sendotzeko.



TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA
ARGAZKIAK: KARKARA ETA ETXELUZE

Erradikalak gara, Berri Txarraken kontzertua, Bizitzaldiak, zine-forumak... indartsu ireki ditu berriz ateak Etxeluze gaztetxeak. Azken hilabeteetan hartu duen martxa, teilatu berria eta itxura berria askoren ahotan daude azkenaldian: *dotore dago gaztetxea!*

Proiektu handi ororen atzean beti daude pertsonak, eta Etxeluzeren atzean ere bada herritar gazte talde bat, gogoz lanean ari dena, proiektua aurrera ateratzeko. Zazpi urte beteiko ditu gaztetxeak uztailea hasieran; gorabehera handiak izan ditu bere ibilbidean. Gaztetxe bat ez da bi egunetan *eraikitzen*, eta gaur ikusten den sendotasunaren atzean azken bi urtetako lanketak, hausnarketak eta negoziazioak daude.

Eraikinean egindako lanek markatu dute, gehienbat, azken bi urteetan gaztetxeko asanbladak izandako eboluzioa eta erritmoa. Bi fase izan dituzte lanek: 2015 amaieran hasi zen lehena teilatuaren konponketarekin, eta urtebete ingu-

rura bigarrena. Paretak, argindarra eta beste hainbat egokitzapen egin ziren fase horretan.

1. Fasea: teilatu berria, indar berriak

2015eko abenduan hasi zen Etxeluzeren segurtasunerako eta osasungarritasunerako lanen lehen fasea. 143.703,55€ko inbertsioa egin zen teilatuaren konponketan eta Eusko Jaurlaritzaren Gaztedi Sailaren diru laguntza jaso zuen Udalak lan horiek egiteko -21.700€-

Lehendik ere indarrak hartzen ari bazen ere, teilatuaren konponketak gazte asanblada indartu egin zuen. Gazte festak berreskuratzean antolakuntzan aritu ziren gaste asko asanbladan parte hartzera animatu ziren, eta horrek eragin handia izan du Etxeluzen, bertako kideen arabera. Garai batean ibilitako batzuk jarraitzen badute ere, belaunaldi berriak sartu dira eta aniztasuna dago asanbladan. *Aniztasun horrek, eta eraikina erosoagoa izateak, asanblada sendotu du.*



Teilatuko lanak martxan zirela asanbladak biltzen jarraitu zuen, gaztetxetik kanpo egon arren. Eraikina erabili ezin izateak aukera eman zion taldeari bertan egiten dituen gauzez hausnartzeko: baloreak, asanbladaren funtzionamendua, autogestioa... Udalarekiko harremanaz ere hausnartu zuten: *barne proiektuaz hausnartzean naturalki sortu zitzaigun Udalaren jarrera ezagutzeko beharra.*

Gaztetxetik deituta, alderdi guztietako ordezkariekin bilera bat egin zuten. *Udalari bere intentzioak zein ziren azaltzeko eskatzen ari ginen, beraz, guk ere ezin genuen esku hutsik joan.* Hitzarmen proposamen bat prestatu zuten; baita plano batzuk ere, eraikineko espazioei eman nahi zieten erabilera-ekin. Hitzarmena, ordea, bigarren maila batean geratu zen momentuz, gaztetxea erabili ahal izateko higie eta segurtasun baldintza batzuk bete behar baitzituen eraikinak.

2. fasea: negoziazio garaia

Obraren bigarren fasean eraikinaren barruko egokitzapen lanak egin behar zituzten: argindarra, komunak, paretak... Udalaren eta gazte asanbladaren arteko negoziazioak hasi ziren orduan. Bi proiektu jarri ziren mahai gainean, Udalarena batetik, eta gaztetxearena, bestetik. Eraikinaren zati bat Udalarentzat izateko ideia atera zen negoziazioetan. *Zati batek Udalarentzat izan behar duela garbi nuen* –dio Ana Priede PSE-EEko zinegotziak–: *udal eraikina da, oso handia da eta egunen batean erabilgarria izan daiteke espazio hori.*

Emeterio Iribarren –EH Bildu– ustez, *Udal gobernua ez zituen arrazoiak mahai gainean garbi jarri.* Gazte asanbladak *jarrera inmobiliaria salatzen du gai horrekin: ez zaigu arike-*

“Ikusi dugu, borondatearekin, posible dela iritzi ezberdinetako jendea espazio berean elkartzea eta adostasunera iristea.”

“Guretzat oso garrantzitsua da herriko eta kanpoko eragileek espazio hau kontuan izatea.”



ta demokratikoa iruditzen zati bat kentzea zertarako den jakin gabe, espazio bati funtzio bat kentzen baitzitzaien.

Udalarentzat eszenatokiarene atzeko aldea izatea planteatu zen lehenbizi. Negoziazioen ostean, aurreko aldea hartuko zuela erabaki zuten. Aitziber Camposen, EAJren obra eta zerbitzuetako zinegotziaren arabera, *oraindik ez da zehaztu zati horri emango zaion erabilera, baina udalak biltegi baten beharra dauka. Jose Angel Iparragirrereren –Orain– ustez interesen bat dago horren atzean, gaia gazteekin landu arte ez baitzen planteatu udal biltegi baten beharririk.*

Segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko lanen bigarren fasea 2016 amaieran hasi eta 2017 hasieran amaitu zen. 90.000€ko kostua izan zuten eta horietatik 18.854€ Eusko Jaurlaritzako diru laguntzen bidez finantziatu ziren.

Lanen emaitza ikusita, balorazio positiboa egiten dute Etxeluzeko asanbladatik: *ituterik ez dago, argindarra daukagu eta eraikina txukun geratu da. Horrek, ekintzak antolatzea errazago egiteaz gain, erakargarriagoa egiten du gaztetxea ikusle bezala joango diren herritarrentzat, bertan joko duten taldeentzat eta baita asanbladako kideentzat ere.*

Hala ere, Udalak, proposatutako hainbat puntu aintzat hartu ez dituela diote gazteek, eta horrek gabezia batzuk ekarri dituela; sukalde batena, adibidez. *Bigarren faseko lanak egiteko diru-laguntza eskatzean, gaztetxeak lehendik zituen erabilera eta espazioak bermatu eta errespetatuko zirela zioen txostenak.* Camposen arabera, berriz, lehen sukalde baime-nik gabe zegoen: *araudia oso garbia da eta, Etxeluzen, orain dagoen bezala, sukalde sartzeari ezinezkoa da, egokitzen lan handiak egin beharko lirateke.*

Hitzarmen baten bila

Egokitzen eta segurtasun lanak amaituta, hitzarmen baten testuinguruan sartu ziren Etxeluzeko eta Udala. Gaztetxeak bere proposamena aurkeztu zuen: *gaur egun martxan dauden bi espazio okupatu hartu genituen eredu, Zarauzko Putzuzulo gaztetxea eta Gernikako Astra proiektua. Herrian eta inguruan ditugun hainbat arkitekto, teknikari eta abokaturekin jarri ginen harremanetan, proposatzen genuena bide-ragarria zela ziurtatzeko.*

Udalak, bere aldetik, beste proposamen bat egin zuen, udal espazio baten lagapen kontratua oinarrituta. Gazte asanbladak kontratu soil bat baino gehiago nahi zuela adierazi zion Udalari: *proposamen hark ez zituen gaztetxearen 6 urteko ibil-bidea eta taldearen beharrak kontuan hartzen. Gure helburua lankidetzara hitzarmen bat egitea zen, Udalak gurekin lan egiteko konpromisoa har zezan.*

Bi aldeen artean adostasunera iristeko, hitzarmen berri bat egin zuten. Asanbladako kideak Udaleko teknikariekin elkartu eta hitzarmen berri bat idatzi zuten, gaztetxearen errealitatea kontuan hartuko zuena eta juridikoki eta teknikoki egingarria izango zena. *Adostasun batera iristea zen helburua –dio Iparragirrek–, gazteek egindako proposamenak –oso zentzuzkoak iruditu zaizkigu gehienak– eta teknikariek jarritako baldintzak kontuan hartuta.*

Lan egiteko moduan desberdintasunak azpimarratu dituzte bi aldeek. *Erabakiak denon artean hartzearen aldekoak gara gu –diote gazteek–, eta ez guk proposatu eta beraiek erabakitzearenak. Politika egiteko beste modu bat da: badakigu herritarrek ezin dietela erabakiei balore juridikorik eman, bai-*

ERREPORTAJEA

na alderdien esku dago borondate politikoa edukitzea herriak benetan nahi duena errespetatuz erabakiak egikaritzko.

Hitzarmenaren negoziazioa asko atzeratu dela diote alderdi guztiek. *Gazteek oso garbi esan dute zer nahi zuten* –dio Priedek–, *baina Udalarari asko kostatu zaio posizionatzea eta erabakiak hartzea.* Erakunde publikoan erabakiak hartzeko prozesuak desberdinak direla aipatzen du Camposek: *ez dauka zerikusirik gainontzeko enpresa, talde edo elkarterekin, eta hori, askotan, ulertzeko zaila da kanpotik ikusita.*

Hitzarmena bi aldeen arteko lankidetzara adostu bat izatea lortu dute eta sinatzera doaz. *Hori da garrantzitsuena guretzat* –diote gazteek–. *Ikusi dugu, borondatearekin, posible dela iritzi ezerdinetako jendea espazio batean elkartzea eta adostasunera iristea.*

Hitzarmena lehenbailehen sinatzea eta martxan jartzea da bai Udalaren eta baita Etxeluzeko asanbladaren nahia. *Egunerokotasunean benetako harremana nolakoa den eta lankidetzara hori nola ematen den ikusteko garaia da, azpimarratu du Iribarrek.*

Proiektu sendoa, aurrera begira

Maiatzan berriz ireki zenetik indartsu dago gaztetxea, agenda bete-betearekin. *Erradikalak gara* antzezlanarekin hasi zuten ibilbidea, Berri Txarrak kontzertua etorri zen gero. Bizitzaldiak, LGTB fobiaren kontrako eguneko zine-foruma eta *Give up tomorrow*, Paco Larrañagaren inguruko filmaren proiektzioa ere izan dira hilabete hauetan Etxeluzen. Horrez gain, uztailaren 2rako urteurren jaia antolatzen ari dira.

Gaur egun gaztetxearen ibilbideko asanblada sendoena da goela esan daiteke –diote bertako kideek–. Zazpi edo hamar pertsona inguru elkartzen dira asteartero egiten dituzten asanbladatan, baina, badira hamabost inguru bueltan dabiltzanak. Horrez gain, bada gazte sare bat momentu puntualetan lan egiteko: barra turnoak, auzolanak...

Etxeluzeko gazteak asteartero biltzen dira, 19:00etan, eta asanblada bidez funtzionatzen dute. Azken urtean udalarekin izandako harremanak markatu du asko asanbladaren erritmoa, baina gaitegia agendak baldintzatzen du normalean. *Badira urtero egiten ditugun ekintzak, baina, aisialdiaz gain, kezkatzen gaituzten gaiak ere lantzen ditugu: elikadura, etxebizitza...*

Asanbladak irekiak direla aipatzen dute kideek, parte-hartzaile guztiek dute ahotsa eta harremanak ahalik eta horizontalenak izaten saiatzen dira. *Edozein proposamen, kritika edo aportazio egin nahi duenarentzat irekita daude ateak.*

Asanbladatik kanpoko hainbat eragilek Etxeluze erabiltzen dute beren ekintzak egiteko, eta hori gaztetxearentzat onuragarria dela diote: *gaztetxea asanbladak kudeatzen du, baina herriarena da.* Ekainean egin diren Bizitzaldiak, adibidez, kanpotik etorritako proposamen bat da. Dispersioff eta Xaltxa Badago jaialdiak ere herriko bi eragilek antolatzen dituzte. San Pedroetan aterako den Inude eta Artzainen konpartsak ere gaztetxean egiten ditu entseguak. *Guretzat oso garrantzitsua da herriko eta kanpoko eragileek espazio hau kontuan izatea; urrian, adibidez, Euskal Herriko Gune Irekien taldeak urteroko batzarra Etxeluzen egingo du.*



7. URTEURRENA: XUMEA ETA GUSTAGARRIA

Uztailaren 2an zazpi urte beteko dira herriko hainbat gaztek Etxeluze eraikina okupatu eta gaztetxe bihurtu zutenetik. Zazpi urte, eta zazpi urteurren.

Gaztetxeak urtebete gehiago betetzen zuela ospatzeko egon dira festa handiago eta txikiagoak. Indar handirik ez zegoelako ospakizunik egin ez den urterik ere egon da tar-tean. Iazko sanpedroetan, seigarren urteurrenean, festa handia zegoen antolatuta, baina bertan behera geratu zen gertuko lagun baten heriotzagatik.

Aurten, zazpigarrenan, urteurren lasai bat egitea erabaki dute, guztiei irekia baina intimoa. *Ospakizun xumea baina gustagarria egin nahi dugu aurten, giro etxekoian.* Esan beza-la, uztailaren 2an izango da, igandearekin:

- 14:30 - Herri bazkaria
- Ondoren: jolasak
- 18:30: Kaxilda plazaren inaugurazioa
- Ondoren: Kontzertu akustikoak

Errekaleor auzo autogestionatuari ere babesa eman nahi dio Etxeluzek: *egungo gizarteari alternatiba errealak eskaintzen dizkion eta guregandik hain gertu sentitzen dugun Errekaleor proiektuari gure babesa adierazi nahi diogu. Guk ere argi dugu!*



Zorionak Eusebi eta Vitorianori!

Eusebi Genova eta Vitoriano Esnalek 50 urte bete zituzten ezkontuta maiatzaren 27an. Maite duten jendeaz inguratuta ospatu zituzten urrezko ezteiak eta maitasun hori itzuli nahi izan diete lagunak eta familiak:

Ederki pasa genuen zuen Urrezko Ezteitan. Familia eta lagunak bildu ginen egun berezia zuekin ospatzeko. Zure ahizpa Triniren partez. Zorionak bikoteari!



*Ezkontza egunean
maza eta lora
maitasuna hainbeste
moduz leike frogatzen.
Ezagutu aurretik
tehenengo biloba
amonari bukatu
zitezaien denborak;
ba, gaurko por hau bien
zubi izango da.*

Amonak Bilobari

*Amonak ezin izan
zintuen kalunka,
baina gaurkoan hitzez
nahi zaitut mazuka.
Paper honetan jarri
ditut apaingututa
eman gabeko lartan
denak juntatuta,
irudika nazarun
hau begiratuta.*



*Nahiz biritzak ipini
gintuen aparte,
zure egun handian
izan nahi det parte.
bidea aurkitua
baitet nolabaite,
sentimenduek ahalmen
handia daukate,
jakin dezazun asko
zaitudala maite.*

PUBLIZITATEA

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

GARMENDIA
BIZITZA AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
informacion@garmendiagestion.com

Joana Murgiondo
Aseguri-agenzia

ASEGURUAK

CCI
CIBARRA, COLVETI, LACORT Y CIA. S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

Endalea Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkara Kalea, 4
20800 Zarauz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com
665 70 33 47

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiaszarraigerros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATYAK INKIZITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATYAK IXTEKO MALOKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEBENTZAKO ZERBITZUA



Omenaldian: Iruntxiberrirekin, senideak eta herri-kirolari ezagunak. XABIER LASA

Iruntxiberriren berriketa eta aitortza

Oroimenaren kutxa

Leon Albeniz Iruntxiberri Aiako Andatza auzoan jaio zen 1937ko abenduaren 18an, Iruntxiberri baserrian. 1971tik Andoainen bizi da. Ekainaren lehen omenaldi beroa egin dio hango herriak aurten 80 urte beteko dituen aiarrari, Leonek bizitza osoan herri-kiroletan egindako ekarpen handiagatik, bai kirolari moduan, bai gero besteei erakusten eta bidea zabaltzen.

Andatzatik Aiarako bidearen eskuin aldean dagoen baserrian aspaldi ez da inor bizi. Zutik horma batzuk geratzen dira. Baina baserri hartan 13 senide jaio ziren, hamahiru. Leon hamargarrena da. Baserriko lan asko egitea tokatu zitzaion gaztetan. Lanbide asko izan ditu Leonek bere denboran. Morroi ibili zen, konstrukzioan, ile-apaintzaile; okina izan zen, zurgina, tabernaria eta liburu-banatzailea. Denboragutxi geratuko zitzaion noski, bere lanetatik kanpo. Horregatik ez omen zen gehiago hazi, berak dioenez, *hazteko ere ez nuen denborarik izan*. Lazkao Txikik ere antzeko zerbeit esan zuen: *jaio Lazkaon, hazi inon ez*.

Gizon txikia da bai Leon; baina lehoi baten indarra izan du beti, bai gorputzean, bai izakeran ere. Hizketan iaioa da, korrika egiteko bezalako erraztasuna du hizketarako. Gogoa herri-kiroletan jarri du beti: korrika, segan eta aizkoran.

Korrikalari handi izandako bi senide ditu familian: Jose Migel Maiz lehengusua –aiarra– eta Mariano Haro koinatua –palentziarra–. Maiz da Lasarteko Nazioarteko Krosa irabazi duen euskaldun bakarra –1968an–; Haro bigarren geratu zen urte hartako lasterketa izugarrian. Haro, berriz, Espainiako korrikalari onena izan zen bere denboran, 27 aldiz irabazi zuen Espainiako txapelketa, luzera erdiko lasterketan –10 eta 20 km.–; eta bitan parte hartu zuen olinpiadetan: Munich –1972– eta Montreal –1976–.

Jose Migel Maizek Albert Mainella frantsesa zuen entrenatzaile Zarautzen. Maizen garaipenek ekarri zuten Orioko arraun klub sortu berria gizon handikote frantses hartaz ohartu eta Oriora ekartzea entrenatzaile, Emilio Olazabal zarautzarraren bidez. Albertek Orion pasatu zituen urteak izan ziren, askoren ustez, Orioko klubaren urterik onenak, arraunaren iraultza ekarri zutenak.

Maiz eta Haro bezala, Iruntxiberri ere oso korrikalari ona izan zen 60ko hamarkadan. Baina Albeniz beste era batean ibili zen korrika. Apustu giroan beti. Haietako bat Orioko San Martin ondoko belazean jokatu zion Igeldoko Polipasori, 1982ko ekainaren 20an, zeinek belar gehiago ebaki. Aurretik, maiatzean, beste bat jokatu zuten Tolosako zezen-plazan, aizkoran. Orduko 400.000 pezeta jokoan aldi bakoitzean. Kito egin zuten; Tolosan Polipasok eta Orion Iruntxiberrik irabazita.

Apustuaren mundua bete-beteaz ezagutu zuen Leonek: jokoak, erronka, trabesa, azpi-jokoak, lehia, nor baino nor gehiago, dirua, garaipena, porrota... Bizitzarako ere gauza asko ikasi zuen giro hartan: *Jende asko arrimatzen da, daki-zuna jakin nahian, galdezka; horrelakoari gezurra esatea libre da, baina isilik dagoenari ez gezurrik esan, ez bazaizu komeni, isilik egon*.

Iruntxiberrik errekor berezia jarri zuen, lasterkari baten zat. Baina hori korrika egiteari utzi eta gero egin zuen, 2003an: liburu bat idatzi, *Nere berriketa eta aitortza*. Iruntxiberrik herri-kiroletan izandako ibilaldi luze eta gorabeheratsuen berri jakin nahi duenak irakurri beharrekoa. Bide batez, herri-kirolen mundua barrutik nolako den ezagutzeko egoki-egokia.

INAKI ITURAIN



Justiziak bere lana egiten ez duenean

Give up tomorrow

Dokumentala, Paco Larrañaga euskal-filipinarraren inguruko filma. Etxeluze gaztetxean eman zuten ekainaren 19an.



Ikusleen galderak erantzun zituen Larrañagak proiektzioaren ondoren.

Lajekzio hilgarriaria jasotzea, borroka egiteko eta neure burua defendatzeko aukerarik izan gabe, hain da bidegabekoa. Hori da filmaren hasieran entzuten den lehenetariko esaldia, Paco Larrañagaren ahotik, eta ikusleari bihotza estutzen zaio momentu horretan.

Ez da askatuko hurrengo ordu eta berrogei minututan.

Injustiziaz eta absurdoz beteriko historia da Larrañagarena; korrupzioak, interesek eta eskubideen urraketak gidatutakoa. Filipinako sistema judiziala auzitan jartzen duen istorio kafkianoa. Poliziaren, abokatuen eta prentsaren trikimailu korrupotek zur eta lur uzten dute bat minutuak aurrera joan ahala. Frogarik izan gabe ere, edozer egiten baitute Paco eta beste sei gazteri bi ahizpen bortxaketa eta hilketaregozteko. Heriotza zigorrera iritsi arte.

Jende mordoak bildu zen Etxeluzen filma ikusteko, hura ez baitzen ohiko zine-forum bat. Ikusleone artean zegoen filmeko protagonista, Paco Larrañaga herritarra. Amaiera kredituak hasi eta eszenatoki ondora gerturatu zen, ikusleen galderak erantzutera. *Oso ondo nago Orion* –esan zion publikoari–, *babestuta sentitzen naiz zuekin*.

MIRIAM GARCIA

www.fotoramiro.com

943831048
610697668

BODEGAS

Gailur

VINOS BANCOS de ORO

Tel/Fax 943 83 91 88

www.bodegasgailur.com

Anakor Etxeola

ZUDUGARAI

Galeriako Tradizionala

Tel. 943 83 03 88

Fax 943 83 34 82

trukelazudugarai@trukel.net

www.trukelzudugarai.com

Katu MORIA

ORIOALDIAZKO KINOKO

ESTROPALARI, 10

20510 ORIO

tel. 943 11 66 99

LARRAÑAGA

608 89 11 20

www.katunoria.com



Soka-tiran Espainiako txapeldun

7 arauzko soka-tira taldearen argazkia da goikoa, 1967. urtean Espainiako txapelketan garaile izan zena. Agorraren edo irailaren 24an jokatu zuten final handia, Donostiako enparantzan, argazkiaren markoan jartzen duenez. Txapeldunak izan ziren argazkiko gizonak, eta baziren, tartean, oriotar eta aiar batzuk ere.

Goian, ezkerretik hasita: Juan Goñi, Constantino Azpiroz –Aia–, ezezaguna, Jose Manuel Ibar, Blas Arruti –Aia–, Martin Maiz eta Luis Mari Etxeberriz-korta.

Behean, ezkerretik hasita: Jose Irastorza –Orio–, ezezaguna, Kortaburu, ezezaguna eta ezezaguna.

Eskerrik asko Asun Goñiri argazkia KARKARARA ekartzeagatik.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

PUBLIZITATEA



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
 ABESLARI KALEA, 8
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

OREKA FISIOTERAPIA

*Tendinitisak
 Lumbalgiak
 Artrosia
 Zefaleak*

*Masaje terapeutikoa,
 bentosak, akupuntura,
 eskuzko terapia,
 osteopatia*

943 13 35 37
 Arrantza kalea, 11 behea



ORIA hertz klinika

Amantzaile kalea, 63 behea
 20810 ORIO
 Tel.: 943 83 36 45

Orio Hertz Klinikak **ORFODONIZIA** zerbiztu berru jarri du martxan. Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre erorkizuneari sar daitezkeen arazoak.

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

KAIOA

Arropa
 Oinetakoak
 Osagarriak

Arantzale kalea, 1
 T 943 04 05
 ORIO (Gipuzkoa)

Zaportak kalea, 16
 15 Parteko Lohazkila ibarra
 T 943 02 04
 ZARAUZ (Gipuzkoa)

Erribera kalea, 10
 T 943 04 02
 ZUMARRA (Gipuzkoa)

www.kaioa.es



ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito
 943 831 774
 600 856 728
 anderexpoelektrizitatea@gmail.com

Ille apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

URAITZ

kurtsiondegia
jantzi-osagarriak

Enbata 3 Tfn: 943 83 18 97



EKILORE GARIKETAK

626417841
 ekilore@outlook.es

Maidier Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
 Arrantzaile 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
 Tel. 943 575 361

oinarri
 PODOLOGIA ZENTROA



2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

T 943 835 980 | www.2gurpil.com | E bigurpil@hotmail.com



BODEGON SARASUA
 ERRETTIGIA

ETXeko BEREZITASUNAK
 ARRAIN ZOPA
 PARRILA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
 Etxeko produktua: tripaiki, odolki, txekarra, txorizo, krokettek...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



INDO

Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
 Tel. 943 894 024
 Fax. 943 130 144
 20809 AIA - ORIO





“Haurrek baratza gertutik ezagutu behar dute”

Juanjo Idigoras

Zaraguetako eskolako gurasoa eta baratzaren arduraduna

Badira urte batzuk Zaraguetako eskolan baratza lantzen dugula. Astero 3. eta 4. mailako ikasleek baratza tailerra egiten dute, eta haiek dira aurrera eramaten dutenak. Hala ere, beste ikasleok noiz behinka jarduten dugu.

Eskola baratzarekin lotuta, oraingoan, Joanjo Idigoras egin diogu elkarrizketa, bera baita eskola-orduz kanpo gure baratzaz arduratzen dena. Joanjoaren esku hartzeari esker dugu halako baratza ederra.

Zenbat urte dituzu Juanjo?

51 urte.

Zer dela eta hasi zinen eskolako baratza zaintzen?

Betidanik pentsatu izan dut haurrek baratza gertutik ezagutu behar dutela; baratzaren berri izan behar dutela; baratzkiak nondik datozen jakin behar dutela. Horregatik hartu nuen ardura hau.

Gustura al zabilta?

Bai, oso gustura. Askotan ikasle batzuk baratzean ikusten nautenean, laguntzera etortzen dira.

Txikitik, gure adina zenuenean, gustatzen al zitzaizun baratza?

Bai, txikitatik ezagutu dut baratza eta betidanik gustatu izan zait.

Ba al daukazu beste afiziorik?

Bai, arrantza. Motor txiki bat daukat eta garaian anguletara joaten naiz. Angulen arrantzua gustatzen zait.

Eskolan beste zerbait egitekotan, zer egingo zenuke?

Momentuz baratza eta oilategiarekin nahikoa dut. Ez daukat denborarik!

Oilategia aipatzen duzula. Zergatik erabaki zenuen oiloak jartzea?

Umeek arrautzak nondik datozen ikusi ahal izateko, txitoak nola hazten diren... Haurrentzako oso erakargarria da, polita.

Baratzaz asko dakizu, baina zein da zure lanbidea?

Eskabadorarekin egiten dut lan.

Udako oporretatik bueltan, udazkenean, izango al dugu uztarik?

Bai; piperrak, erremolatxak, berenje-nak, letxugak, kalabazak, kalabazinak...



Jon Erkizia

Animaliak etxean?

Gizakiak aspaldian etxeratu zituen animaliak, nahiz elikagai moduan hazteko, nahiz maskota bihurtzeko.

Askoren ustez animaliak etxean edukitzea ona da konpainia egiten dietelako baka-rik bizi direnei, adinekoei edo adibidez leku bakartietan bizi direnei. Itsuei laguntzeko ere erabiltzen dira, batez ere txakur-rrak, eta sekulako mesedea egiten diete. Eta etxe bakartuetan, zaindari, txakurrek etxea babesten dute.

Maskota edukitzeak ordea, baditu alde txarrak ere. Higiene aldetik askok ilea botatzen dute, eta etxea oso zikin utzi. Gainera, ondo zaindu beharrak sekulako gastua dakar: albaitariarengana eraman behar da, txertoak jarri, janaria bereziak erosi...

Familia askotan umeek eskatzen dute animalia bat edukitzea, baina azkenean beste norbaitek zaindu behar ditu. Horregatik sarritan txakurtegietan bukatzen dute, edo kalean abandonatuta, batez ere udan, opor garaian.

Ondo pentsatu beharko litzaiteke edozein animalia etxean maskota moduan sartu aurretik.

10 urte Antilla-hondartza eremua berritu zenetik



2004an hasi ziren Antilla eremua berritzeko lanak. KARKARA



2007an amaiu ziren lan gehienak. KARKARA

Antilla hondartza da Orioko hondartza nagusia; Ori ibaiaren bokalearen eta Kukuarri mendiaren artean dago. 3500 m² inguruko azalera du, 220 metro luze eta 90 metro zabal ditu batzaz beste.

Aldaketa ugari jasan ditu hondartzak azken hamarkadatan, eta hamar pasa dira, hain zuzen, hondartzako azken lanak amaitu zirenetik.

Aldaketak hondartzan

1997. urtean egin zen Orioko Antilla hondartzako obren lehenengo fasea: urte amaieran lehenengo eraikineren eraketakin hasi ziren. 1998an hondartzaren aurrealdea konpontzeko lanak amaitu ziren.

2003an hondartza eremuko urbanizazio lanekin hasi ziren eta 2007an amaitu ziren. Hauek dira egindako lanak:

- Hondartzaren urbanizazioa egin zen -2006an amaitu ziren hondartza aurreko etxebizitzak eta 2007 eta 2010 bitartean Abaromendikoak.

- Kirol portua 2006an amaitu zuten.

- Hondartzako parkeak 2007an egin ziren.

- Hotela 2007an amaitu zuten.

- 2006 eta 2009 bitartean dunak berreskuratzeko lanak egin ziren.

- 2012an hondartzako pretila berritu zen.

- 2012 eta 2015 bitartean kanpina berritu zen eta ondoko espaloia zabaldu.

- 2015ean espigoia konpondu zuen Portu Zuzendaritzak.



Oteizak, skif-ean zihoan arraunlariaren metafora bikaina utzi zingun. Arraunlariak atzera begira doala egiten du aurrera. Herri gisa, ezinbestekoa da nondik gatozen jakitea, aurrera egiteko. Oriok xarma duen hondartza izan du beti. Izaera berezi horren inguruan erabakiak hartzea konplikatu izaten da. Ausardia puntu bat izaten dute atzetik. Hondartza inguruko berrantolaketa diseinatu eta aurrera eraman zutenek, ausardiaz jokatu zuten. Gaur egun, herritarrei kalitatezko zerbitzuak bermatzeaz gain, aisialdi eta turismoari begira aukera bikainak eskaintzen dira. Orioko EAJren ustez, egin beharreko eraldaketa bat izan zen. Hondartza inguruaz, oztoporik gabe gozatzeko aukera gehiago du herriak. Ondo integratu dira gunee residentziala eta aisialdirako guneeak. Ausardiaz hartutako erabaki hark, oraindik ere herriari hainbat onura bermatzen dizkio. Ezin ahaztu baitaiteke, Udalaren egoera finantziero osasuntsua, hein handi batean, erabaki haren ondorio dela.



Orain Alde txarrak... eta onak

Proiektuak, koloretako planoak eta paperean idatzitako asmo politak eta egitasmo handiak batzuetan ez dira aurreikusitakora hurbiltzen eta Antilla-Hondartza eremua izan daiteke adibide bat. Usteak ustel gertatu dira, *urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau*. Garai haietako aparrak desegin dira eta balorazio orokorra negatiboa da. Oriok bere ondare eta izaera zati bat saldu zuen betirako, ez dauka atzera bueltarik. Horrelako *desarrollismo*etan sartu aurretik proiektuei bi buelta eman behar zaiela da gelditu zaigun eskarmentua.

Bestalde, saldu ziren lursailekin -tartean kanpinaren ia erdia- jasotakoa oso ondo etorri zaio herriari beste proiektu batzuk aurrera ateratzeko -tartean Arraunetxea- eta zorrik gabeko udaletxe gutxien artean egoteko.

Alde txarrak... eta onak balantza baten jarrira lehenengoen nagusituko lirake askogatik. Gaur egun egiteko egongo balitz, ikusita emaitzak, ez dugu uste herria horren alde jarriko zenik.



EH Bildu Alde onak eta ez hain onak

%80an eremu naturala eta publikoa izatetik, ia dena urbanizatu gelditu zaigu Antilla eremua: 300 etxebizitza berri, hotela, kirol portua eta hiru eraikin, ostalaritza zerbitzua emateko. Bestetik, Udalari lanpostuak eta diru-sarrera garrantzitsua zekarz- kion udal kanpinaren azalera ia erdiratu egin da -15.000 m2 galdu ditu-.

Aukera ezberdinak egon arren, bakarraren eztabaidara mugatu zuten guztia, eta proiektu hura era horretara bultzatu zutenek oparotasuna besterik ez zioten iragarri herriari. Non gelditu dira iragarpen haiek guztiak?

Egindakoak ez du atzera-bueltarik, baina posible zen gaur egun dagoena baino berrantolaketa hobea egitea. Merezi zuen esfortzu hori egitea. Zoritxarrez, horretan ez zen inolako interesik jarri. Egindako akatsetatik guztiok daukagu zerikasiasia. Ez dadila berriro horrelakorik gertatu.



PSE-EE Hilabete honetan iritzirik ez Hilabete honetan ezin izan dute iritzirik idatzi.

Kultura

Orioko silla-dantza Anibarko Portuko festetan



San Martin auzoko baserriarrek dantzatzeko zuten Orioko silla-dantza, eta Sarobe baserriko Antonio Peñak jotzen omen zuten dultzainarekin berezko musika. Asaturburuan ospatu dituzten Anibarko Portuko festetan dantza zaharra berreskuratzen dute.

1983. urtean Juan Mari Beltran, Karlos Garaialde eta Pedro Mari Santos Euskal Herriko festen inguruko elkarrizketak egiten aritu ziren, Eusko Ikaskuntzaren Folklore Sailak bultzaturiko ikerketa baterako. Orion, Sarobe baserriko Jose

Peña Gozategi elkarrizketatu zuten, eta hark eman zien Orioko Silla dantzari buruzko informazioa.

Dantzaren jatorrizko musika bere aita Antoniok jotzen zuen baserrian, dultzainarekin. Inguruko baserrietan, txistu, akordeoi edo aho soinuarekin jota egiten omen zen silla-dantza, eta instrumenturik ez bazen, partaideen kantu eta txaloeekin.

Silla-dantzak bi zati ditu: dantza eta jokoak. Lehen zatian, partaideek dantza egiten dute aulkiak beti ezkerrean utziz,

aurreraka oinez, besoak goran dituztela. Hirunaka ematen dituzte pausuak, eskuinera eta ezkerrean. Doinua hainbat aldiz errepikatu ondoren, bigarren zatia hasten da, jokoarena.

Zati honetan, nolabait, irabazleak eta galzaileak izaten dira: nahastu eta galdu egiten direnak, mantsoenak eta azkarrenak, edo korrika horretan harrapatzen dituztenak.

Larunbatean, nahikoa barre eta algara egin zituzten Anibarko Portuan, aspaldiko dantza berreskuratzeke aitzakian.

Gizartea

Tarifa berriak Aiako udal igerilekuan



Udara hasi da dagoeneko eta ekainaren 10ean ireki zuten Aiako igerilekua. Irailaren 10era bitartean egunero izango da zabalik, 11:00etatik 20:00etara.

Aurten Aiako Udalak aldaketak egin ditu igerilekuko tarifetan. Eguneko sarreraren prezioa 18 urte artekoentzat 4 euro, eta 18 urtetik gorakoentzat 5 euro. Egun erdiko sarrera 2 euro.

Hiru hilabeteko txartela 4-18 urte bitartekoentzat 20 euro, eta 18 urtetik aurrerakoentzat 40 euro. Familientzat txartela bereziak ere egingo dituzte: bi kideri %20ko beherapena, eta hiru kide edo gehiagori %25eko beherapena.



U.K. HITZA

Kirola

Mikel Arruti fitxatu du Azkoitiko Anaitasuna futbol taldeak

Mikel Arruti Rezabal (Orio, 1991) da Azkoitiko Anaitasuna futbol klubak 2017-18 denboraldirako egin duen lehen fitxaketa. Orioko atezainak urtebeterako kontratua sinatu du Anaitasunaren gizonezkoen talde nagusiarekin.

Ostiral arratsaldean Txerloia futbol zelaian aurkeztu zuten atezaina Josu Juaristi kirol zuzendariak eta Igor Quindos entrenatzaileak. Ibilbide luzea egin du futboleko Arrutik. Jubenilen Ohorezko Mailan Antiguokon aritu zen, 2006tik 2009ra bitartean. Ondoren, atzerrira egin zuen jauzia, Eskoziara hain zuzen. Glasgowko Celtic taldean probak egin ondoren, Petershill taldean, Eskoziako Hirugarren Mailan aritu zen 2009-10 denboraldian.

Handik berriz ere Euskal Herrira itzuli zen. C.D. Rotetan aritu zen lehenik, 2010eko irailetik abendura bitartean, baina urtarriletik ekainera Zumarragako Urola K.E. taldean jokatu zuen. Azken bost denboraldietan Hirugarren Mailan aritu da Arruti, C.D. Pasajes taldean hain zuzen.

Kultura

Udako ordutegiak Aiako eta Orioko kultur etxeetan

Uda iristeko egun gutxi falta dira, eta Aiako kultur etxea udako ordutegia egiten hasi da. Irailaren 15era bitartean, 08:00etatik 14:00etara izango da irekita. Bestalde, abuztuaren 7tik 31ra itxita egongo da oporregatik.

Orioko Kultur Etxea bestalde, ekainaren 26an hasiko da udako ordutegia egiten. Uztailean 09:00etatik 13:00etara egongo da irekita, eta abuztuan itxi egongo dute oporregatik.

Euskara

Udako euskara ikastaroa antolatu du euskaltegiak

Udan euskara ikasi nahi dutenentzat, 80 orduko euskara ikastaroa antolatu du euskaltegiak. Matrikulazio epea zabalik dago dagoeneko, eta interesa dutenek 670 telefonora deitu edo orio@aek.eus helbidera idatzi dezakete. Horrez gain, Orioko Euskaltegian ere informazioa jasoko dute. 80 orduko ikastaroaren prezioa 135 eurokoa izango da.

Kultura

Denboraldiko azken erromeria

Ekainaren 11n denboraldiko azken erromeria egin zuten Aristerrazun, eta jendetza bildu zen hitzorduan. Izer eta Alabier trikitilariak igo ziren oholtza gainera, eta Euskal Telebistak grabatuko zuen saioa Oholtzan saiorako. Aurtengo erromeria denboraldiak *arrakasta handia* izan duela ere nabarmendu dute Andatzako Erromeria Elkarteak kideek. *Betiko erromeria zaleez gain, jende berria ere bildu da Andatza auzoan, erromeriarekin eta festarekin gozatzeko eta gure ohiturak indartzeko gogoz.*



MAILLO OIARZABAL/HITZA

Kirola

Izeta II.-ak txapelketak utziko ditu

Urrezko Aizkoraren Banakako Txapelketaren finalak jokatu zituzten igande eguerdian Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Eta, haiekin tartekata, harri-jasotzaileen II. Pastorkua Memorialaren finala ere jokatu zuten. Bertan, Joxe Ramon Iruretagoiena Izeta II.a aiarrak eta Mikel Lopetegi Urza zarautzarrak neurtu zituzten indarrak. Beteranoa eta gaztea, maisua eta ikaslea aurrez aurre, eta bigarrenentzat izan zen txapela. Urraren garaipenaren adinako albistea eman zuen, ordea, Izeta II.-ak: finaleko azken saioaren aurretik, Luis Mari Bengoa antolatzaileak elkarriketatuz zuen Aiakoa eta igandekoa beretzat azken txapelketa izan dela iragarri zion. Erakustaldietan-eta jarraituko duela esan zuen, uda ondorenerako marka ahalegin bat prestatzen ari dela ere bai, baina ez duela gehiago txapelketetan eta lehiaketetan parte hartuko.

Aia

Sanjoanak Iturriotzen

■ Ekainaren 23an, Astiazaran II.a, Andonegi eta Lutxurdiorekin erromeria, 22:30ean.

■ Ekainaren 24an: 10:30ean, meza; ondoren, herri kirol jaialdia auzoko gazteen artean; jarraian, Irazu eta Zubeldia bertsolariak eta Tapia eta Leturia eta Laja zaharra eta Lutxurdio trikitilariak; segidan, bazkaria. 21:30ean erromeria Tapia eta Leturia eta Laja zaharra eta Lutxurdiorekin.

■ Ekainaren 25ean: 10:30ean meza; ondoren, hamaiketako. 14:00etan bazkaria Iturrioren; ondoren, trikiti doinuak Laja gaztea eta Narbaizarekin eta bertsoak Mujika eta Mendizabalekin.

Sanpedroak Elkanon

■ Ekainaren 28an, txupinazoa 20:00etan.

■ Ekainaren 29an: 8:00etan, txupinazoa suziri eta kanpaiekin; 11:30ean, meza nagusia; ondoren, auzokoen arteko tortila patata lehiaketa, Laja eta Larrañaga trikitilariak giroa alaituta. Afalostean, Laja eta Larrañaga trikitilariak.

■ Ekainaren 30ean, sardina jana eta haur jolasak, 20:00etan.

■ Uztailaren 1ean: 11:00etan, haur jolasak, 21:30ean auzo-afaria frontoian; ondoren, Izer eta Alabier.

■ Uztailaren 2an: 11:30ean, meza nagusia; ondoren, herri kirolak eta Ansozregi eta Larrañaga trikitilariak. 18:00etan, idi proba Agustin Salberdin, Txokolate eta Joxe Barriolaren idiekin; ondoren, erromeria Ansozregi eta Lutxurdiorekin.

Sanpedroak Andatzan

■ Ekainaren 28an: 9:30ean, txupinazoa; 10:00etan oilasko biltzea. 21:30ean garai bateko Mutil Ardokoen eta Uhartemuño elkarteko afaria.

■ Ekainaren 29an: 10:30ean, meza nagusia; ondoren, auzoko zaharrentzako salda beroa; 13:00etan, herri kirolak auzoko gazteen artean; ondoren, trikitilariak; 14:00etan auzoko jubilatuen bazkaria Aristerrazun. 18:00etan, Aiako herri pilota txapelketako partidak; ondoren, txinga txapelketa; 22:30ean, Izer eta Alabier.

■ Ekainaren 30ean: 10:00etan, meza nagusia; 11:30ean, haurrentzako jolasak; ondoren, kalejira buruhandiekin.

16:00etatik 19:00etara, puzgarriak umeentzat; 18:00etan moto *Molto* eta bizikleta lasterketak; ondoren, merienda.

21:30ean mus txapelketa; 22:30ean erromeria Non nahi taldearekin.

■ Uztailaren 1ean: 12:30ean, trikipoteoa; 14:30ean, bazkaria Uhartemuño elkartean. 23:00etan, DJ Kanuto; goizaldera, gaupaseroen argazkia.

■ Uztailaren 2an: 11:00etan, Aiako herri pilota txapelketako patidak; ondoren, trikitilariak. 18:00etan, harri-jasotzaile jaialdia; ondoren sagardo dastaketa eta ogitartekoak. 22:00etan, erromeria Kupela eta Furunarenarekin; 1:00etan, jaiei amaiera emateko traka zaratatsua.

■ Uztailaren 15ean, oilasko-biltzeko afaria, 21:30ean, Uhartemuño elkartean.

Santio auzoko festak

■ Uztailaren 25ean Santio Erreka auzoko jaiak.

San Donato eta San Lorentzo

■ Abuztuaren 6tik 10era, San Donato eta San Lorentzo jaiak.

Podologoia

■ Uztailaren 29an podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

Orio

San Joan Berde

■ Ekainaren 23an, Sorgin Gaua. 21:30ean Kosta Tailerretik aterako da sorgin taldea, 22:30ean emanaldia Ikastola aurreko plazan.

Triatloi herrikoia

■ Ekainaren 24an, Triatloi Herrikoia Ikastolak antolatuta. 17:00etan gazte txoak eta 17:20ean helduak.

Ikastaroa

■ Uztailaren 1ean eta 2an, Chikung CFQ ikastaroa, Alex Arellanoren eskutik, Mandalara elkartean. Informazioa jaso edo eta izen emateko zenbakia: 648.48.74.89

Estropadak

■ Uztailaren 8an, Orioko XXVII. estropada-V. Orio Kanpina Bandera, 18:00etan. Eusko Label ligako bandera.

■ Uztailaren 15ean, KAE ligako bandera 19:00etan.

Bisiguaren festa

■ Uztailaren 13tik 16ra Bisiguaren Festa plazan. Erreserbak uztailaren 3tik aurrera 943 83 55 65 zenbakian.

Dantza eta musika

■ Uztailaren 23an, ella Fitzgerald-i omenaldia, Deborah Carter-en boskotearen kontzertua, 22:00etan plazan.

■ Uztailaren 24an, PADDAM bikotea. Estefania S Wulf eta Iñaki Migelen emanaldia *chanson* frantsezari buruz, 19:00etan, plazan.

■ Uztailaren 25ean, *Dantza kultura da* emanaldia WM dantza eskolaren eskutik plazan.

Umeentzako

■ Abuztuaren 10ean, Niko Nok pailazo, artista eta malabarista, 19:30ean, Anibarko Portuan.

■ Abuztuaren 12an eta 26an, uretako puzgarri eta jolasak, 17:30ean arranplan.

■ Abuztuaren 24an, *Hiru ipuin* emanaldia Tomaxen abenturak taldearen eskutik, 19:30ean, Abaromendi plazan.

Outlet azoka

■ Abuztuaren 26an eta 27an, Outlet azoka plazan, Arkupek antolatuta.

Zinea hondartzan

■ Uztailaren 8an, *Igelak* filma, 22:15ean.

■ Uztailaren 25ean, *Zootropolis* filma, 22:15ean.

■ Abuztuaren 5ean, *Ozzy* filma, 22:15ean.

■ Abuztuaren 26an, *Star trek: mas allá* filma, 22:15ean.

Traste zaharrak

■ Uztailaren 12an eta 26an, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

■ Abuztuaren 16an eta 30ean, traste zaharren bilketa. Aurrez Udaletxera deitu behar da: 943830346.

KOMIKIA



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz

(943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.

Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

■ Orioko familia euskalduna alokairu bila herrian bertan.

Gutxienez bi logela. Tf: 635201600

■ 3 logelatako eta garajedun Babes Ofizialeko etxea alokatzen dut Andatza auzoan. Tfnoa: 660893220

Lan eskaintza

■ Tabernaria behar da egu-nero lan egiteko, euskalduna

izatea ezinbestekoa. Tf: 639729981

■ 5 urteko neska zaintzeko pertsona behar da Ekaineko erdialdetik Iraileko erdialde-
ra, goizetik eguardira. Pertso-
na horrek arduratsua eta euskalduna izan behar du. Berdin zaigu ume gehiago bere kargu baditu.

Telf: 605701772

■ Bi neska txiki arratsalde-
tan zaintzeko emakumea

behar da. Emakume horrek 35-50 urte artekoa, ardura-
tsua, alaia eta euskalduna izan behar du. Kotxea eta dis-
ponibilitatea izan behar ditu. Udararen ere lan egingo du. Epe luzerako lana da. Interes-
atuak telefono honetara deitu: 655729050

Lan eskaera

■ 34 urteko Neska euskal-
dun eta arduratsua naiz,

arratsaldez haurrak zaindu, etxeko lanak edo eta parti-
kularrak emateko prest, (as-
telehenetik, ostiralera). Tf: 659321326

■ 18 urteko neska udan ume-
ak zaintzeko prest. Interesa-
tuak deitu zenbaki honetara: 688872903

■ 19 urteko neska euskaldun bat eskaintzen da udan hau-
rrak zaintzeko. Interesatuak deitu telefono honetara: 671960750

■ Emakumea lan bila, barne-
koa, kanpokoa edo gaeuz. Haur edo zaharren zainke-
tan edo garbiketari lan egite-
ko prest. Esperientzia eta erreferentziakin. Tf: 600390347 -Katy-

■ Karmele, 50 urteko euskal-
duna umeak zaintzeko lan bila. Tf: 687200368

■ Umeak zaintzeko eskain-
tzen da emakume bat. Espe-
rientziaduna Tf: 664156444

■ Neska lan bila zaharren
zaintzan. Esperientzia eta
paperak ditut. Tf: 674123293
■ Ordukako lan bila dabilen
mutila. Garbiketari eta hel-
duen zaintzan. 603644555

ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	11:23 eta 23:48	4:58 eta 17:19	
02	12:29 eta	6:00 eta 18:25	
03	0:55 eta 13:33	7:02 eta 19:30	
04	1:57 eta 14:29	8:00 eta 20:27	
05	2:51 eta 15:17	8:50 eta 21:17	
06	3:37 eta 15:58	9:34 eta 22:00	
07	4:18 eta 16:36	10:14 eta 22:39	
08	4:55 eta 17:12	10:52 eta 23:17	
09	5:31 eta 17:46	11:28 eta 23:53	
10	6:06 eta 18:21	12:04 eta	
11	6:40 eta 18:55	0:29 eta 12:39	
12	7:16 eta 19:30	1:05 eta 13:15	
13	7:52 eta 20:07	1:43 eta 13:53	
14	8:32 eta 20:49	2:23 eta 14:35	
15	9:17 eta 21:37	3:07 eta 15:22	
16	10:10 eta 22:35	3:58 eta 16:18	
17	11:13 eta 23:43	4:57 eta 17:22	
18	12:24 eta	6:03 eta 18:34	
19	0:58 eta 13:37	7:12 eta 19:45	
20	2:09 eta 14:42	8:17 eta 20:50	
21	3:13 eta 15:40	9:16 eta 21:48	
22	4:10 eta 16:33	10:10 eta 22:42	
23	5:01 eta 17:23	11:01 eta 23:31	
24	5:50 eta 18:10	11:48 eta	
25	6:36 eta 18:55	0:19 eta 12:34	
26	7:21 eta 19:40	1:05 eta 13:19	
27	8:06 eta 20:25	1:50 eta 14:04	
28	8:51 eta 21:10	2:35 eta 14:49	
29	9:38 eta 21:59	3:21 eta 15:38	
30	10:30 eta 22:55	4:11 eta 16:32	
31	11:30 eta	5:06 eta 17:33	

ZAINZAKO BOTIKAK

UZTAILA:

- 1ean eta 2an, Etxeberria
- 3an, Iriarte
- 4an, Esparza
- 5ean, Larrañaga
- 6an, Mutiozabal
- 7an, Etxeberria
- 8an eta 9an, Gallo
- 10ean, Esparza
- 11n, Larrañaga
- 12an, Mutiozabal
- 13an, Esparza
- 14an, Gallo
- 15ean eta 16an, Izpizua
- 17an, Larrañaga
- 18an, Mutiozabal
- 19an, Gallo
- 20an, Etxeberria
- 21ean, Lasa
- 22an eta 23an, Esparza
- 24an, Mutiozabal
- 25ean, Esparza
- 26an, Gallo
- 27an, Lasa
- 28an, Zulaika
- 29an eta 30ean, Iriarte
- 31n, Izpizua

Izpizua:

- Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orto
- Gallo: Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- Esparza: Santuturri plaza, 5. 943 50 47 83 Zarautz

Salgai

■ Mobile homa saltzen edo alokatzen da Bañares kanpi-
nean, Santo Domingo de la
Calzada herrian -Errioxa-.
Tf: 649346893 -Eli-.

